

# Euskara eta literaturako programazio didaktikoa

**Autor:** Causo Santa Cruz, Ainhoa (Licenciada en filología vasca, Profesora de euskera en educación secundaria).

**Público:** Master en Formación del Profesorado. **Materia:** Euskara eta Literatura. **Idioma:** Euskera.

**Título:** Euskara eta literaturako programazio didaktikoa.

## Resumen

Kontu kontari, euskara eta literaturarako unitate didaktiko baten proposamena Gaur egungo ikasleak, elebidunak edo eleanitzak dira, hau da, hainbat hizkuntza dakizkitez; orduan hizkuntzen ezagutza orokor batzuk jada badituzte, eta ezagutza horiek erabilgarri egin behar direla argi dago. Ezagutza horiek beste hizkuntzetan erabili behar dituzte, transferitu behar dituzte, horretarako, hizkuntzen artean erlazio bat ikusi behar dute ikasleek, transferentziak egiten ikasteko. Hizkuntza bakoitza bere aldetik ikasten bada, ikasleei zailago egingo zaie erlazioak topatzea.

**Palabras clave:** HTB.

**Title:** A teaching unit in Basque and Literature.

## Abstract

Nowadays, a lot of people know more than one languages, what is more in our secondary education our children study at least 3 languages. That is the reason why I write this writing. I think that children have a basic gramatical items that are useful for other languages and I think that is necessary to transfer all those contents. We have to see all the languages in the same way and teach them with the same bases.

**Keywords:** HTB.

Recibido 2017-12-19; Aceptado 2018-01-05; Publicado 2018-01-25; Código PD: 091061

## 1. SARRERA

Master amaierako lan honen bitartez praktikan jarri nahi dut urte osoan zehar ikasitako zenbait eduki. Horretarako hizkuntzen unitate didaktiko bat garatuko dut, hizkuntzen trataera bateratua oinarri izanda.

Hizkuntzak metodo honen bitartez irakasteko proiektua, espezialitatean emandako ikasgai batetik hartutako ideia da. Ikasgai horretan hizkuntzak modu bateratu batean nola landu ikusi genuen eta bertan landu eta gero, oso proiektu interesgarria izan daitekeela pentsatzen dut.

Gaur egungo ikasleak, elebidunak edo eleanitzak dira, hau da, hainbat hizkuntza dakizkitez; orduan hizkuntzen ezagutza orokor batzuk jada badituzte, eta ezagutza horiek erabilgarri egin behar direla argi dago. Ezagutza horiek beste hizkuntzetan erabili behar dituzte, transferitu behar dituzte, horretarako, hizkuntzen artean erlazio bat ikusi behar dute ikasleek, transferentziak egiten ikasteko. Hizkuntza bakoitza bere aldetik ikasten bada, ikasleei zailago egingo zaie erlazioak topatzea.

Hizkuntzak modu bateratuan lantzea metodo oso baliagarria dela iruditzen zait. Alde batetik, gauzak behin eta berriz errepikatzea, materia guztietan, ikasleentzako aspergarria dela pentsatzen dudalako, eta beste aldetik denbora galtze ikaragarria delako. Hiru ikasgaiak hizkuntzak izanik komunean dutena kontuan hartu behar da eta erabilgarri egin; hau da, hizkuntza batean ikasten dena besteetan erabili.

Nire ustez, ikastetxeetan derrigorrez praktikan jarri beharko litzatekeen proiektu izan behar da. Proiektu hau aurrera eramateko irakasle guztien laguntza beharrezkoa da, hizkuntzetako irakasle batek ezezkoa esaten baldin badu, proiektua aurrera eramatea oso zaila izango litzateke, denon partaidetza beharrezko baita. Erabaki bateratuak hartu behar dira, esperientziak partekatu, lan orduak ere elkarrekin antolatu, etab.

Beraz, hau izango da nire proposamena; narrazioa lantzea ikastetxeetan lantzen diren oinarrizko hiru hizkuntzak kontuan izanik (euskara, gaztelera eta ingelesa).

## 2. HELBURUA

Nire helburua, nik praktikak egin ditudan ikastetxean, hau da, San Jose ikastetxean, hizkuntzen trataera bateratuaren gaineko proiektua ezartzea da. Horretarako, hizkuntzetako irakasle guztiak, hau da, euskara, gaztelania eta ingeleseko irakasleak, elkarrekin lanean aritu beharko dira.

Modu bateratu batean lan egitearen arrazoia zera da: ikasleek oinarrizko zenbait gaitasun landu behar dituzte urtean zehar, eta gaitasun horiek hiru hizkuntzetan derrigorrezkoak dira; beraz, eduki teorikoak behin eta berriz errepikatu egiten dira hizkuntza ezberdinetan eta horrek denbora galtze handia suposatzen du. Horregatik, hiru hizkuntzetako irakasleak elkarrekin lanean jartzen baditugu landu beharreko materia hori ondo antolatu daiteke, eta errepikatu barik eduki berdinak eman daitezke. Modu honetan, ikasleek gehiago ikasteko aukera daukate, eta hizkuntza batetik bestera transferentziak egin ditzakete ikasitako materialarekin; eduki hauek hiru hizkuntzetarako baliagarriak izanik.

Hau honela izanda, nire helburua honako hau da: hiru hizkuntzetan, modu bateratu batean lan eginez, narrazioa lantzea. Horretarako teknologia berrien erabilera sustatuko dut, eta horien bitartez lan egingo dugu klasean. Amaieran, ikasleek haien lanak ikastetxeko web orrialdera igoko dituzte eta denok ikusgai izango dute.

Proba hau ondo irtenez gero, proiektuarekin jarraitzeko proposamena egongo litzateke. Hasiera batean maila baxuenetan hasiko ginateke proiektua ezartzen eta laugarren mailara arte ailegatzeko proposamenarekin burutuko da. Horretarako bai ikasle eta bai irakasleen etengabeko laguntza beharrezkoa da.

## 3. JUSTIFIKAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bai euskara eta bai gaztelera hizkuntza ofizialak izanik, hezkuntza elebiduna jasotzeko aukera izan dugu. Hala ere, gaur egun globalizazioa dela eta ingelesa ere irakaskuntza horretan sartu da. Hori dela eta, hezkuntza curriculumari begiratzen baldin badiogu, hizkuntzak modu bateratuan irakasteko proposamena planteatzen da; hau da, programazio adostuan irakastea. Hizkuntza Curriculumak zera dio hizkuntzen trataera bateratuaren (HTB) gainean:

Bigarren Hezkuntzako ikasleak eleanitzak dira, neurri batean; hori dela eta, proposatutako hizkuntza-helburuez gainera, hizkuntza-irakasleek hausnartu eta beren irakaskuntza moduak egokitu beharko dituzte, eta, aldi berean, arreta berezia jarri beharko diote hizkuntzen lanketa integratuari. Hizkuntzak modu integratuan irakastea honako arrazoi hauen ondorio da. Batetik, ikasleak elebidunak edo eleanitzak direnez, une oro hainbat hizkuntza dakizkitez eta horien bidez lortutako ezagutzak dituzte, beren euskarri kognitiboak eta emozioak osatzen dituztenak, hain zuzen. Eta bestetik, hizkuntza-ikaskuntzak trukatzeko ahalmena eta, hitzunek parte hartzen duten eremuetan, hainbat hizkuntza aldi berean egon ahal izatea aipatu behar dira. Egiatzapen horien arabera, beraz, alor bakoitzean dagokiona landu beharko da eta bateragarriak diren gaiak guztien artean trukatu beharko dituzte, betiere bakoitzaren erabilera egokia bultzatuta.

Hizkuntzen trataera bateratuaren helburu nagusia zera da: hizkuntzak modu egokian ikastea gure gizarteko testuinguru plurala kontuan izanik. Hizkuntza bat ikasten dugunean beste hizkuntzetarako erabilgarriak diren eduki asko ikasten dira, eta modu honetan, beste hizkuntza baten ikasketa errazagoa izan daiteke.

Uri Ruiz Bikandik (2008: 48) dio hizkuntzen programazioen planifikazio bateratua beharrezkoa dela hezkuntzan; premiazkoa.

El tratamiento integrado de lenguas, exige elaborar conjuntamente, a partir del conocimiento de los usos lingüísticos de los alumnos en cada lengua, aquellos aspectos cuyo desconocimiento dificulta el avance de la interlengua o precisan de atención reflexiva específica. Se trata de posibilitar que relacionen, establezcan nexos, descubran paralelismos, y comportamientos opuestos, formulen reglas, las apliquen y puedan referirse a ellas en un trabajo de reflexión metalingüística que desvele el funcionamiento de las lenguas y delimite al mismo tiempo sus perfiles para poder hacer un uso autónomo de cada una. Para lograr esos fines conviene disponer de una terminología unificada que permita en las clases de lengua(s) referirse a los elementos, a las reglas lingüísticas y a los mecanismos que actúan en los distintos sistemas.

Gaur egun, Espainiar estatuan, “trilinguismo” -aren leloa suspertzen ari da hizkuntzak irakasteko helburu gisa baina ez dute modu egoki batean antolatatu. Artur Nogueroi-ek (2008: 13) dioen bezala “lo hacen simplemente con un planteamiento de enseñanza acumulativa de lenguas. Tanto es así que ha llegado a formularse el reparto igualitario de la dedicación horaria (el 33% para cada lengua) como si fuera la solución para lograr un dominio igual.”.

Beraz, hizkuntza bat ondo ikasteko ez ditugu beste hizkuntzak baztertu behar eta baten bakarrik murgildu. Hizkuntza baten ikasten dena beste hizkuntzetara transferitu daiteke eta horrela gure ezagupena zabalduko dugu. Baina hizkuntza bakoitza bere aldetik eta aparte ikasten baditugu oso zaila egingo zaigu hiru hizkuntzak menperatzea. Eta ez hori bakarrik, denbora aldetik ere, asko galduko dugu, dena behin eta berriz ikasi beharko dugulako, ez dugulako hizkuntza baten ikasten duguna beste hizkuntzan erabilgarri egingo, ez gara gai izango hizkuntza bakoitza bere aldetik ikasten baldin badugu. Maria Pilar Sagastak eta Matilde Sainzek (2006: 58) zera diote:

Hizkuntza baten bidez egiten ikasten dena ez da berriro ikasi behar beste hizkuntza batean, prozedurak transferigarriak direlako. Gaitasun akademikoa transferigarria da hizkuntza batetik bestera, baina hizkuntzen erabilera sustatu behar da transferentzien mekanismoa pizteko. Erabilera sustatzen ez bada, ikaskuntzak nekez transferituko dira.

Hori dela eta, hizkuntzen trataera bateratua bultzatu behar da eta hau aurrera eramateko zenbait pausu beharrezkoak dira.

Hona hemen Teresa Ruiz Perezek (2008: 48) proposatzen dituen egin beharreko premiazko lehenengo pausak irakaskuntza bateratu hau lortzeko:

- Irakasle-talde bat izatea, hau da, lan-orduak partekatu, erabaki bateratuak hartu, esperientziak partekatu, etab.
- Gaztelera, ingelesa eta euskara moduko hizkuntza desberdinek komunean zer duten jakin; nola aprobetxatu ikasleen baliabide linguistiko eta kulturalak, eta zein den modu egokiena hizkuntzak irakasteko testuinguru elebidun edo eleanizetan.
- Irakaskuntza material egokia aukeratu helburu berriei egokitzuz.

Argi dago, hizkuntzen irakaskuntza bateratua aurrera eramateko, lehenengo eta behin kontuan hartu behar dena irakasleen lan bateratua dela. Irakasleek ez badute elkarrekin lan egiteko ardura hartzen ezinezkoa da hizkuntzak elkarrekin aurrera eramatea, beraz, hori izan beharko litzateke ikastetxeek hartu beharreko lehenengo ardura. Artur Nogueroi (2008: 14) ere ideia honen aldekoa da:

La didáctica integrada de las lenguas supone superar el nivel mínimo de coordinación con la programación conjunta, que implica el acuerdo de todos los profesores de las lenguas que se enseñan en el centro en cuanto a objetivos, contenidos, métodos y procedimientos de enseñanza y evaluación.

Honetaz gain, beste bi ideia nagusi proposatzen ditu:

(...) la didáctica integrada de las lenguas requiere la realización de actividades para la intercomprensión de las lenguas de la misma familia, lo que supone integrar los objetivos y explotar la transferencia de estrategias y otros conocimientos.

(...) el desarrollo de la competencia plurilingüe e intercultural exige que en las aulas se hagan presentes las lenguas del alumnado, las del entorno, las minorizadas e inclusive las más lejanas, “exóticas” o desconocidas, para aprender de ellas y de las personas que las hablan.

Hizkuntza bat ikasteko ez dago zertan edozein ikasgai (gizarte, historia, matematika, biologia...) atzerriko hizkuntzan landu behar. Proposamen hau ondo burutzeko ikastetxeko proiektu linguistikoan zehaztu behar da eremu bakoitzean zein eduki landuko diren, noiz landuko diren, nola, zein hizkuntzatan eta zein helbururekin egingo den. Edozein ikasgai atzerriko hizkuntzan emateak ez du bermatzen hizkuntza ikasiko dutenik.

Proposamen honen helburua, hizkuntzak era bateratuan irakastearren helburua, ikasleek hizkuntza menderatzea da eta gai izatea hizkuntza horretan idazteko, zerbait azaltzeko, argumentatzeko, egunerokotasunean erabiltzeko, errealitateira eramateko, etab. Hizkuntzak ikastea ikastearren ez dauka inongo zentzurik, haien erabilera bultzatu behar da. Uri Ruiz Bikandi (2006: 52) ideia honen aldekoa da:

Funtsa da ikasten denari zentzua topatu behar zaiola, eta hori lortzen dela baldin eta ikasi beharrekoak sozialki zentzua badu. Hau guztiaren premisa da ikasleak, problemak ebatzi eta aldi berean ikasi nahi izango dituela mundu errealean gertatzen diren problemen antza dutenean.

Ikaskuntza hori sistematizatu behar da. Horregatik, irakasleak aktibitatea planifikatzean ez die ekintzei bakarrik begiratuko, baizik eta haiekin datozen edo etor daitezkeen zeregin diskurtsiboak eta hizkuntzaren formak ere aurreikusi beharko ditu. Zeregin sozialetan erabiltzen diren forma horiek eurek ere erabili, jabetu eta konturatu daitezzen lagundu behar baitie ikasleei. Horretarako hizkuntzaren erabilerak planifikatu eta sistematizatu beharko ditu, ikasketaren prozesuan zehar behar diren egokitzapen guztiak eginez.

Hau guztia aurrera eramateko, talde lana egokia izan daitekeela proposatzen dute jakitunek. Modu honetan, ikasleek elkarri laguntzen diote eta batek dakiena besteari irakasten dio eta alderantziz. Uri Ruiz Bikandi (2006: 54):

(...) Umeen talde lanak normalean, haien artean mailarik altuena duenaren maila hartzen du, gehien dakienari bere jakituria ezagutzen zaio eta horren ondorioz bera izaten da taldearen zereginetan gidari. Gehien dakiena gutxiago dakienari egokitu behar zaio, nagusia txikiari, irakaslea ikasleei... izan ere, elkarlana eta bertan sortzen diren laguntza aukerak sustatu behar dira, horrela ikasten baitira hizkuntzak eta horrela ikasten baita lankidetzeta, bizitzan oinarritzkoa dena: bakoitzak dakien neurrian eman eta behar duen neurrian hartu posible egiten duen giza jokabidea.

Lan kooperatiboak giza taldearen hezkuntza eta komunikazioa posible egiteaz gain, taldeak integratu eta elkarren arteko ezagutza bultzatu, problemen aurrean begirada zorroztu eta komunikazioa areagotu egiten baitu.

Hizkuntzen trataera bateratua hain proposamen baliagarria izanik, zergatik ez da ikastetxeetan aurrera eramaten? Oriol Guaschek (2008: 22) eduki teoriko eta praktikoetan ikusten du gabezi handiena: “La falta de instrumentos teóricos y prácticos para desarrollar las ideas generales acerca del tratamiento integrado de las áreas de lengua ha limitado también las posibilidades de que el profesorado consciente de esta necesidad se implique en hacerla realidad.”.

Argi dago, hasiera batean irakasleek, argitaletxeek, eta hezkuntzan lan egiten duten guztiak lan handia egin beharko dutela proposamen hau aurrera eramateko, lehengo urteak gogorak izango direla, lan handikoak, baina behin egoera hori gaindituta, hizkuntzak modu eraginkor batean ikasiko dira, ikasleek ikasten dutena erabilgarri ikusiko dute, eduki guztiak askoz ere erabilgarriagoak izango dira, eta honela hezkuntza sistema ere hobeto joango da, hezkuntza maila seguruenik gora egingo du proposamen hau aurrera baldin badao eta hezkuntza sistema osatzen duten guztiak gogoz ekiten baldin badute.

Hala era, zenbait zalantza sortzen dira proposamen hau aurrera eramateko orduan. Adibidez, irakaskuntza eleanitza suspertzeko eredu bat sortzen denean, posible izango al da eredu bakar hori ikastetxe guztietan suspertzea? Maria Pilar Sagastak eta Matilde Sainzek (2006: 57) zera uste dute: “Hartzaileari eta testuinguruari erreparatu behar diegu hezkuntza eleanitza bermatzeko. Ondorioz, testuinguru jakin baten arrakastatsua den proiektu eleanitz bat ezin da estrapolatu beste testuinguru batera; eskolak berak eraiki behar du eraginkorra izango den eredu eleanitza.”.

Beraz, argi dago, ikastetxe bakoitzak, testuingurua eta hartzailea kontuan izanik, bere hezkuntza eleanitza suspertu behar duela, eta ez dagoela zertan beste ikastetxeetako irakaskuntza eredu bera erabili behar, segun eta non gauden era batera edo bestera antolatu beharko dira gauzak.

Bukatzeko, ondorio gisa, Uri Ruiz Bikandik (2006: 55) dioten bezala “irakaskuntza aktiboa, kooperatiboa, zentzuzkoa, ikaslean zentratua, komunikazioan oinarrituta, ikasle banaka bakoitzaren beharrezkoak kontutan dituenak, induktiboki ikasten eta forman erreparatzen laguntzen diona da printzipio metodologikook proposatzen dutena.”

Hau guztia kontuan izanik prestatuko dut hizkuntzen trataera bateratuaren proposamenari hasiera emango dion unitate didaktiko bat, euskara ikasgaiari arreta handiena jarritz.

#### 4. IKASTETXEA

Basauriko San Jose ikastetxeak bere ateak ireki zituen 1935. urtean baina zenbait arazo zirela eta itxi behar izan zuten 1954. urtean. Hala ere, 1955ko irailean gaur egun dagoen lekuan zabalduta zen ikastetxe berria.



<http://sanviator.net/2013/02/18/50-aniversario-de-los-antiguos-alumnos-de-san-jose-de-basauri/>

San Josen A eredia zen nagusi 80.hamarkadara arte, horren ostean euskalduntze proiektu batean sartu ziren eta B eredia ezartzen hasi zen, hala ere, gaur egun D eredian guztiz murgilduta dago. Ikastetxeak lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza egiteko aukera aurkezten du.

#### **-Testuingurua eta egoera sozioekonomikoa**

San Jose ikastetxea, Basauriko erdialdean dagoen ikastetxea da. Basauri ingurune erdalduna da, bertako jende gutxi hitz egiten du euskaraz egunerokotasunean, eta hori ikastetxean nabarmen ikusten da. Ikasle guztien ama hizkuntza gaztelania da eta horretaz gain, ikastetxean ere gazteleraz hitz egiten dute, beraz, ikasleen euskara maila oso baxua izan ohi da. Horretaz gain, aipatu beharra dago, gero eta atzerritar gehiago daudela bai Basaurin bai ikastetxean, eta horrek zaildu egiten duela euskararen erabilera, hauetariko askok ez dutelako zertan euskaraz ikasi behar, eta horrek ikastetxean gazteleraz hitz egitea areagotzen du.

San Jose ikastetxean, Basauriko herrian bezala, familietan egoera sozioekonomiko ezberdinak daude. Alde batetik, familia batzuk, haien seme-alabak ikasketak hobeto aurrera eramateko edozein ekintzetara, bai ikastetxean bai kanpoan, apuntatu ahal dituzte haien egoera sozioekonomikoa ahalbidetzen duelako. Baina beste alde batetik, familia gehienak egoera sozioekonomiko baxuan bizi dira, eta oso zaila egiten zaie haien seme-alabei laguntza eskaintzea ikasketetan, denbora libre gutxiago daukatelako eta diru gutxiago ere lagundu ahal izateko. Horretaz gain, badira familia asko ez direnak inplikatzeko haien seme-alaben irakaskuntzan, eta honek arazo asko ekartzen ditu; adibidez, ikastetxera material barik etortzen dira, ez libururik, ez koadernorik, eta modu horretan ezin dute klase-kideekin batera aurrera jarraitu. Beraz, arazo hauek urtero ikusten dira ikastetxean eta oso zaila izaten da arazo horiei aurre egitea.

#### **-Familien espektatibak**

Familia guztietan espero den moduan, haien helburua da haien seme-alabak batxilergo egitera heltzea, eta bere seme-alaba ez bada batxilergo heltzen, edozein izanik bere arazoa, eskola-porrota moduan ikusten dute. Hau horrela ikusirik, eta ikastetxeko emaitzei begiratzen baldin badiegu, ikusten dugu %60k ez dutela batxilergo joateko maila nahikoa. Datu hau oso kezagarria da irakasleriarentzat eta hori dela eta kurtso hasieran gurasoei abisatzen diete zer gertatu daitekeen kurtso amaieran.

Hala ere, San Jose ikastetxeak izen ona dauka, ikasleen gainean egoten direlako etengabe, haien arazoez kezkatzen dira, etxeko arazoak, ikastetxeko arazoak, etab. eta hori gurasoek asko eskertzen dute.

#### **-Irakasleen profila**

Irakasleak garrantzi handia dauka ikastetxeko hezkuntzaren garapenean, hori dela eta ezaugarri batzuk izan behar ditu, betebeharrak hau egoki gainditzeko:

-Ikastetxeko hezkuntza proiektuarekin identifikatu eta konpromisoa hartu.

-Jarrera positiboen sortzailea.

- Gizarte baloreak eta balore ebanjelikoak bilatu eta sustatu, ez bakarrik ikaskuntza prozesuak landu.
- Pertsonen balore positiboak kontuan izan, akats eta ezintasunen aurretik.

### **-Ikastetxeko kultura**

San Jose Ikastetxean garrantzi handia ematen zaio erlijioari. Zentroaren egitekoa ebanjelizazioa da.

“El Colegio San José se sitúa como signo de la presencia del Reino de Dios en el mundo de la educación, como gesto de fe y esperanza en la posibilidad del hombre nuevo, y como fermento que transforma la masa por los valores del evangelio. Además, asume una función profética en el interior mismo de la cultura y en la iniciación cultural del joven. Dinamismo profético que se proyecta en el diálogo fe-cultura, que se ha de promover en dos vertientes: inculturando la fe y evangelizando la cultura.” Proyecto de Pastoral de Centro.

Hezkuntza eredu zenbait ezaugarri zehaztuta dago:

- Ikasle bakoitzaren ezaugarri eta nortasunari errespetua.
- Familia espiritua erlazio interpersonaletan.
- Arazoak dituzten ikasleenganako ardura.
- Metodo didaktiko arrazoitua eta ulergarria.
- Ikastetxeko giro osasuntsua, alai eta zorrotza.
- Ikastetxeko Hezkuntza Komunitate osoa parte hartzen duen estruktura.
- Kalitateko irakaskuntza erlijioso.
- Eskolaz kanpoko ekintzak eskaintzen dituena gelako heziketa indartzeko.
- Irakasle eta kolaboratzaileen heziketa profesional eta kristauarengatik kezka.

### **-Hirueletasunaren ezarpena**

2011-2012. urtean San Jose Ikastetxean eredu hirueleduna ezarri zuten. Proiektu hau Eusko Jaurlaritzak bultzatuta eta Kristau Eskolak dinamizatu.

Plan honen helburua ingelesari garrantzia ematea da irakaskuntzan, gaur egun gero eta garrantzi handiagoa duelako gizartean, eta beste herrialdeetako jendearekin harremanak sortzeko gaitasuna errazten duelako.

Beraz, proiektu honek honako ikasgaietan izango du aldaketa: Lehen Hezkuntzako 4.mailatik hasita, ingelesa, plastika eta inguruaren ezaguera ingelesez irakatsiko dira, beraz, DBHko 4.mailara arte ikasgai hauek ingelesez landu beharko dira. Modu honetan, pentsatzen da, San Jose Ikastetxeko ikasleak gai izango direla ingelesez komunikatzeko askatasunez.

Hona hemen oinarri teorikoan azaldutako akats nagusi bat. Hizkuntza bat ikasteko ez dago zertan edozein ikasgai atzerriko hizkuntzan landu behar. Honek ez du bermatzen ikasleek ingelesa ondo ikasiko dutenik. Garrantzitsuena atzerriko hizkuntza ondo antolatzea da eta ez gero eta ikasgai gehiago ingelesez irakastea. Beraz, nire ustez, hirueletasunaren ezarpen honen ostean, ikastetxeko proiektu linguistikoa berrantolatu beharra dago, hau da, ingelesa ikasgai gehiagotan landu beharrean, hiru hizkuntzak elkarrekin landu eta horrela baliagarriagoa egingo zaie ikasleentzat haien arteko harremana ikusiko dutelako.

### **-Ikasleen ezaugarriak**

Hizkuntzen Trataera Bateratuaren proiektu hau DBHko lehenengo mailan proba gisa landuko da. Bertan egitea pentsatu dut, pentsatzen dudalako egokia dela proiektu hau ezartzea ziklo baten hasieran, batez ere, jarraipena izan dezakeelako. Horretaz gain, aipatzekoa da San Jose ikastetxean DBHko lehenengo eta bigarren mailakoek bakarrik dituztela teknologia berriak eskura, hau da, arbela digitala edota ordenagailu propioak, eta proiektu hau aurrera eramateko teknologia berrien erabilera beharrezkoa dela pentsatzen dut, elkarreragina lantzeko oso baliagarria delako.

Hori dela eta komeni da lehenengo mailako ikasleak nolakoak diren ezagutzea eta zelako gaitasunak dituzten azaltzea.

### **-1.mailako ikasleak**

Masterreko praktikak egin bitartean, denbora gehien pasatu dudan maila DBHko lehenengo maila izan da, beraz, ikasleak ondo ezagutzeko aukera izan dut. Hizkuntzen aldetik gabezi batzuk ikusi ditut. Gabezi horien iturria ez dakit zein den baina gabezi horiek gainditzea beharrezkoa da.

Alde batetik, San Jose ikastetxea B eredu izan da betidanik, eta eredu horretan ikasi dutenek euskararen arazoak izatea ulertzen da, baina gaur egun D ereduan murgilduta dago, eta lehenengo mailakoak adibidez, txikitatik D ereduan ikasi dute. Hala ere, haien euskara maila oso baxua da. Ikastetxeak honen aurrean ematen duen argudioa zera da: ikasle hauen ama hizkuntza gaztelera dela eta horregatik ez dute euskara ondo menperatzen, erabiltzen ez dutelako. Baina hau ez dago zertan horrela izan behar, beste ikastoletan ikasleen ama hizkuntza ere gaztelera delako, bizi diren ingurua kontuan izanik, hala ere, haien euskara maila egokiagoa da. Beraz, argudio horrek ez du balio arazo honen iturri gisa.

Beste alde batetik, ikasle atzerritarren ugaritasuna kontuan izan behar da. Ikastetxera doazen ikasle asko euskara ikasteaz libre daude, beraz, ikasleek haien artean gaztelera hitz egiten dute, atzerritarrek baztertuak ez izateko. Beraz, arazo honek euskararen erabilera murriztea dakar. DBHko lehenengo mailan, adibidez, palestinar bat dago; palestinar honek ez du ez gaztelera, ez euskara, ez ingelesa menperatzen, beraz, oso zaila izaten da berarekin erlazionatzea. Hala ere, bai irakasleak bai ikasleak gaztelera ulertzen dira berarekin eta horrek klasean ere gaztelera egitea suposatzen du.

Hala ere, lehen esan dudan moduan, lehenengo mailakoak dira txiki-txikitatik D ereduan ikasten hasi ziren ikasleak, beraz, haien euskara maila beste urteetakoak baina egokiagoa da, eta horretaz gain, ingelesa ere lehen hezkuntzatik landu dute eta gaitasun nahikoa izango dutela pentsatzen dut proiektu hau aurrera eramateko.

Maila honetako ikasleak oso langileak dira. Oraindik oso gazteak dira eta ez dira adin txarrean sartu, beraz, maila honetan klase ematea errazagoa da. Oso ikasle formalak dira, klasean oso adi daude, denbora osoan prest daude klasean parte hartzeko, irakurtzeko, ariketak zuzentzeko, etab.

Lehen aipatu dudan palestinarra, klasean zehar ariketa desberdinak egiten ditu gaztelera ikasteko, eta horretarako euskarako klaseetan berarentzat beste tutore bat izaten du. Hala ere, klasean integratzeko arazo handiak ditu hizkuntza dela eta, eta ezinezkoa da beste ikasleekin batera ikasgai bat aurrera eramatea. Proiektu hau aurrera eramateko orduan, ezin izango litzateke ikasle hau sartu, ez baitu ezer ulertzen eta beste irakasle baten etengabeko laguntza beharrezkoa duelako.

Horretaz gain, kurtso erdian sartu zen ikasle bat ere badago. Ikasle honek arazoak ditu gauzak ulertzeko eta barneratzeko, horregatik egokitzapen kurrikularra dauka eta hori dela eta lehen hezkuntzako materialarekin egiten du lan. Hala eta guztiz ere euskara eta gaztelera berdin-berdin ikasten ditu. Horregatik, pentsatzen dut, ikasle hau gai izango dela proiektu honen barruan zenbait ariketa egiteko; ulertzeko gai izan daitekeelako eta modu honetan klasean integratzeko aukera ere izango duelako. Horretarako, unitatean zehar, arbela digitalean zenbait joko antolatuko dira denek parte hartu ahal izateko.

Laburbilduz, proposamen hau maila honetan egitea aukeratu dut, nire ustez, ikasle oso langileak direlako, ikasteko gogoekin, lan egiteko prest daudelako egunero, eta klasean parte hartzeko arazorik ez dutelako jartzen. Gainera, autonomia handia daukaten ikasleak dira eta erritmo handiarekin lan egiten dute. Hori guztia dela eta, klase hau oso egokia dela pentsatzen dut proiektu hau aurrera eramateko.

## 5. NIRE PROPOSAMENA

Hizkuntzen trataera bateratuari hasiera emateko San Jose Ikastetxean proba moduan landu nahi dudan unitate didaktikoa narrazioa izango da. Hiru hizkuntzatan narrazioa zer den, nola egiten den, zeintzuk diren atalak, zer landu behar den, etab. lantzea da nire proposamena. Horretarako, narrazioa bi atal nagusitan banatu dut. Alde batetik narrazio literarioa, eta bestetik autobiografia.

Nire proposamena zera da: euskal hizkuntzan narrazio literarioa lantzea. Modu honetan, euskaraz mintzatzeko, idazteko eta pentsatzeko daukaten gaitasuna garatuko dute, hau da, praktika gehiago eginez, gero eta errazago egingo zaie euskaraz idaztea, edota hitz egitea. Narrazio literarioa lantzeko, beraz, zenbait istorio labur asmatu egingo dituzte eta klase-kideei kontatuko dizkiete. Horrela, amaierako lana egiten dutenean gutxiago kostatuko zaie idaztea, unitatean zehar ariketa ezberdinak landu dituztelako.

Autobiografía gaztelanian landuko dute. Gazteleraz hitz egiteko eta idazteko gai dira ikasle guztiak, beraz, autobiografía honen bitartez haien burua azaltzeko gai izatea da lortu nahi dudana. Haien sentimenduak espresatzen, nolakoak diren azalduz, eta horrela beste ikasleak ere ezagutuko dituzte.

Honen ostean, ingelesean landu nahi dudana honakoa da: Poster bat egitea. Poster horretan, autobiografía labur bat eta eguneroko bat agertuko da, haien egunerokotasuneko bizitzan zer egiten duten azaldu beharko dute eta gero hori dena dekoratu, polito jarri, eta poster horiek beste ikasleek ikusi eta baloratu egingo dute. Honen bitartez, hizkuntza lantzeaz gain, teknologia berriak ere ezagutuko dituzte eta gaur egun eskura dagoen teknologia guztia erabiltzeko gai izango dira.

Beraz, nire helburua hori da, euskaraz eta gazteleraz, narrazio literarioa eta autobiografía lantzea eta gero, ingelesez hauen bien arteko nahasketa bat, maila gutxiago dutenez, ezin zaie gauza handiegirik eskatu, orduan, horrela planteatzea egokia dela deritzot. Gainera, aipatu behar dut generoa bakarrik landuko dudala; eduki testualak kontuan izango ditut, eduki gramatikalak alde batera utzirik.

## 6. OINARRIZKO GAITASUNAK

Proposamen hau aurrera eramateko landuko diren oinarrizko gaitasunak honako hauek izango dira:

- 1- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- 2- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- 3- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

### **-Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna**

Gaitasun honen funtsa hizkuntza erabiltzea da, ahozkoa zein idatzizkoa, bai errealitatea adierazi, interpretatu eta hura ulertzeko egindakoa, bai jakintza eraikitzeo eta komunikatzeko egindakoa, bai eta pentsamoldea, emozioak eta jarrerak antolatu eta norberak erregulatzeko egindakoa ere.

Gaitasun honi dagozkion jakintzek, trebetasunek eta jarrerak bide ematen dute pentsamenduak, emozioak, bizipenak eta iritzia adierazteko, elkarrizketan aritzeko eta iritzi kritikoak eta etikoak osatzeko, ideiak sortzeko, jakintza egituratzeko, diskurtsoari eta norberaren ekintzei eta egiteko koherentzia eta kohesioa emateko, erabakiak hartzeko eta ahozko nahiz idatzizko entzunaldiez, irakurraldiez nahiz mintzaldiez gozatzeko. Horrek guztiak, gainera, autoestimua eta norberarenganako konfiantza handitzen laguntzen du.

Derrigorrezko eskolaldiaren amaieran hizkuntzarako gaitasuna behar bezala eskuratua izateko, ahozko eta idatzizko hizkuntza menderatu behar da era bateko eta besteko testuinguruetan, eta atzerriko, gutxienez, hizkuntza baten erabilera funtzionala izan.

Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna etengabe agertuko da unitate honetan. Ikasleek, bai idatziz bai ahoz, haien lanak aurkeztuko dituzte eta modu kritiko batean klase-kideenak ebaluatuko dituzte, eta haien iritzia emango dute. Euskarari adibidez, haien egunerokotasuneko gauzak kontatuko dituzte, narrazio baten moduan, baina haien errealitatea kontatu beharko dute. Gazteleran, autobiografía dela eta, haien bizipenak kontatuko dituzte modu formal batean; eta ingelesean, ordea, bien arteko nahasketa bat egingo dute, bertan, pentsamenduak, bizipenak, iritzia eta emozioak azalduz.

### **-Informazioa tratatzeko gaitasuna eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna**

Informazioa bilatzea, hautatzea, erregistratzea, tratatzea eta aztertzea eskatzen du gaitasun honek, eta, horren barruan, teknika eta estrategia egokiak erabiltzea informazio hori eskuratzeko, betiere, informazio-iturriari eta erabilitako informazio-euskarriari erreparatuta.

Oinarrizko hizkuntza espezifikoak menderatu behar dira (testuak, zenbakiak, ikonoak, ikusizko hizkuntza, grafikoak eta soinuak), eta hizkuntza horiek deskodifikatzeko eta transferitzeko jarraibideen berri izan; eta baita mota askotariko egoera eta testuinguruetan aplikatzen jakin, hala informazio-motak, informazio-iturriak, informazioak ematen dituen aukerak eta informazioaren kokapena, nola informazioaren adierazpenerako erabiltzen diren hizkuntzak eta euskarriak ere.

Teknologia horiek informazioa eta jakintza sortzeko erabiliko ditu ikasleak. Gaitasun hori eskuratuta, hauek egiteko gai izango da ikaslea: informazio ugari eta konplexua behar bezala prozesatzeko eta kudeatzeko; errealitatean sortutako



arazoak konpontzeko; erabakiak hartzeko; lankidetzeta-esparruetan lan egiteko, eta, komunikazio-inguruneak zabalduz, ikaskuntza-komunitate formalean eta ez-formalean parte hartzeko; eta ekoizpen arduratsuek eta sortzaileak egiteko.

Teknologia digitala erabiltzean, informazioko eta komunikazioko teknologiek ematen duten informazioa aprobetxatu eta ikuspegi kritikoz aztertu behar da, norberak lan autonomoa eginez eta beste pertsona batzuekin lan eginez, alderdi sinkronikoan nahiz diakronikoan.

Teknologia digitala etengabe erabiliko dute; informazioa bilatzeko, haien lanak blogera igotzeko, besteen lanak irakurtzeko, etab. Euskal hizkuntzan adibidez, informazioa bilatzeko erabiliko dituzte ordenagailuak; horretaz gain, arbela digitala askotan erabiliko dituzte ariketak, jokoak, etab. egiteko. Gaztelanian ere ordenagailuekin arituko dira gora eta behera. Haien azkenengo lana ikastetxeko blogera igo beharko dituzte, eta horretaz gain zenbait ariketa egiteko arbela digitala erabiliko dute.

Azterriko hizkuntzan, berriz, egunero erabiliko dituzte teknologia berriak, haien lanak interneten bidez burutuko dituztelako eta ikasle bakoitza ordenagailu propioa izanik, hauen erabilera sustatu behar delako.

#### **-Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna**

Gaitasun honek eskatzen du, alde batetik, elkarrekin lotutako zenbait balio eta jarrera pertsonalen kontzientzia izatea eta horiek aplikatzea. Hona balio eta jarrerok: ardura; irmotasuna; nor bere burua ezagutzea eta auto-estimua izatea; sormena; autokritika; kontrol emozionala; hautatzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko ahalmena izatea; eta berehala asebetetzeko premia atzeratzeko, akatsetatik ikasteko eta arriskuak hartzeko ahalmena izatea.

Bestalde, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunak barnean hartzen du hautuak irizpide propioei jarraituz egiteko gaitasuna, proiektuak sortzeko gaitasuna, eta norberak egindako hautuak eta norberaren planak, proiektu indibidualetan nahiz talde-proiektuetan jasoak, aurrera eramateko ekintzak egiteko gaitasuna izatea. Hori guztia arduraz egin behar du ikasleak, bai bizitza pertsonalean, sozialean nahiz lan-esparruan.

Erronken eta aukeren ikuspegi estrategikoa izatea eskatzen du, ikuspegi horren bidez, helburuak identifikatzeko eta lortzeko bidea errazteko eta abiatutako lanak arrakastaz bukatzeko motibazioari eusteko, anbizio pertsonal, akademiko eta profesional sanoak izanda. Halaber, ikasleak jarrera baikorra izan behar du aldaketa eta berrikuntzekiko.

Harremanetarako, lankidetzarako eta talde-lanerako gizarte-trebetasunak izatea eskatzen du gaitasun honek, hala nola gainerako pertsonen lekuan jartzen jakitea, gainerako pertsonen ideiak balioestea, elkarrizketatzea eta negoziatzea. Asertibitatea ere landu behar du ikasleak, norberak hartutako erabakiak behar bezala jakinarazteko eta lankidetzeta-giroan eta malgutasunez lan egiteko.

Laburbilduz, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna izateko, ikasleak sormenez, konfiantzaz, arduraz eta sen kritikoz sortu, abian jarri, garatu eta ebaluatu behar ditu ekintza edo proiektu indibidualak nahiz kolektiboak.

Argi dago, ikasleek askotan autonomiarekin lan egingo dutela, klasean landuko diren ariketa asko taldeka egingo dituzte, baina gero etxean, idazmena lantzeko orduan batez ere, bakarrik arituko dira eta sormen handia izan beharko dute. Ikasleek akatsetatik ikasiko dute, jarrera egokia izan behar dute, eta agertzen zaien arazoei aurre egin beharko diete.

Honetaz gain, taldean lan egiten ikasiko dute eta besteen ideiak eta iritziak onartu beharko dituzte, ikasleek egindako guztia besteengandik ebaluatua izango baita. Beraz, jarrera positiboa izan behar dute.

## **7. EUSKARA, GAZTELERA ETA INGELESA**

### **-Printzipioak**

Hizkuntzen curriculumak adierazten duen moduan, curriculum integratu bat proposatu da, ikasleek bi hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, azterriko hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna lortzea helburu duena, eta, horretarako, honako printzipio hauek bete behar dira:

- Hizkuntzen ikaskuntzaren oinarria inklusioa da; hau da, ikasle guztiei eleaniztasuna oso-osorik garatzeko aukera eman behar zaie, bakoitzaren ama-hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.
- Hizkuntzen irakaskuntza erabileran oinarritu behar da; izan ere, hizkuntzak gizartearen erabiliz ikasten dira, eta komunikazio-premia pragmatikoek bideratzen eta laguntzen dute kodea behar bezala ikasten.

- Hizkuntzen irakaskuntza komunikazio-ikuspegian oinarritu behar da; hau da, ikasgelak komunikazio gune pribilegiatu bihurtu behar dira, ikasleek hainbat komunikazio-jardueratan parte-hartze eraginkorra izateko aukera ematen dutenak.
- Hizkuntzen irakaskuntza hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboetan oinarritu behar da, eta kontuan izan behar da hizkuntzek gizarte-harremanetan eta pertsonen emozioen garapenean duten garrantzia.

**-Helburuak**

<b>Euskara eta literatura Gaztelania eta literatura</b>	<b>Atzerriko hizkuntza</b>
<p>1. Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.</p> <p>2. Ahoz eta idatziz, esan-idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta solasteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntza arauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.</p> <p>3. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihesteko dira.</p> <p>4. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, erlazioan dauden hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.</p> <p>5. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez erabiltzeko.</p> <p>6. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio-estragiak transferitzeko; horrela, ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko norberak duen ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa sentituko dute.</p>	<p>1. Ahoz eta idatziz behar besteko autonomiaz adierazteko gaitasuna izatea, ohiko komunikazio-egoeretan sortzen diren premiei behar bezala, koherentziaz eta zuzen erantzuteko.</p> <p>2. Ulermen- eta sorkuntza-prozedurei dagokienez, atzerriko hizkuntzaren sistemari buruz hausnartzea; horrez gainera, hizkuntzari buruzko ezagutzak eta hizkuntzaren erabilera-arauak autonomia apur batez aplikatuko dira, eta hizkuntzen artean transferi daitezkeen ezagutzak eraginkortasunez erabiliko dira, norberaren sorkuntzak hobetzeko.</p> <p>3. Gizarte-komunikazioko baliabideak eta informazio- eta komunikazio teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, atzerriko hizkuntzan informazioa lortzeko, komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.</p> <p>4. Norberaren ikaskuntza-prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta arloetan jasotako ezagutzak eta komunikazio estrategiak transferitzeko; horrela, atzerriko hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko ahalmenari dagokionez, nork bere buruan gero eta konfiantza handiagoa izango du ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko.</p> <p>5. Ereduzko testuak eta norberak hautatutako testuak irakurriz literatura obrez gozatzea, eta ikus-entzunezko beste eremu artistiko batzuk ere (antzerkia, zinema, irratia, telebista...) kontuan hartzea, mundua eta giza egoera ulertzeko, hizkuntzari dagokionez aberasteko eta sentiberatasun estetikoak garatzeko.</p>

**-Edukiak**

<p><b>Euskara eta literatura</b> <b>Gaztelania eta literatura</b></p>	<p><b>Atzerriko hizkuntza</b></p>
<p>-Eguneroko bizitzako testu idatzietatik eta ikasle-interesetatik hurbil dauden komunikabideetatik lortutako informazio garrantzitsuena ulertzea eta interpretatzea, eta gertaera sinpleen azalpenetan, deskribapenetan eta narrazioetan arreta jartzea.</p> <p>-Edukia sintetizatzea, eskemak edo laburpenak eginez.</p> <p>-Plangintza egin ondoren, hainbat komunikazio-helburu dituzten eta hainbat</p> <p>testuingurutan dauden testu idatziak sortzea (paperean nahiz euskarri digitalean): gutunak, oharak, abisuak, narrazioak eta deskribapenak; horretarako, komunikazio-egoera eta horren egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna kontuan hartuko dira.</p> <p>-Oinarrizko hizkuntza- eta diskurtso-elementuak erabiltzea, ideiak testu barruan kohesionatzeko: lokailuak, oinarrizko testuak, izen-sintagmaren eta aditz-sintagmaren arteko komuntadura...</p> <p>-Testu idatzian puntuazio-markak erabiltzea, perpausak antolatzeke eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa eta ordenatzea).</p> <p>-Testu-tratamendurako IKTen teknikak (testu-prozesadoreak, hiztegi elektronikoak, zuzentzaileak) erabiltzea, bai testualizatzeko, bai testua berrikusteko eta hobetzeko.</p> <p>-Erabilitako gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauei dagokionez, testu</p> <p>idatziak paperean nahiz euskarri digitalean egoki aurkezteko interesa agertzea.</p> <p>-Testu idatzietan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.</p>	<p>-Jarduerak behar bezala egiteko oinarrizko argibideak ulertzea.</p> <p>-Ulermenerako oinarrizko estrategiak erabiltzea eta transferitzea, testu baten gai eta esanahi nagusia identifikatzeko eta informazio garrantzitsua eta garrantzirik ez duena bereizteko.</p> <p>-Beste hizkuntzetan eskuratutako hizkuntza-ezagutza formalak aktibatzea, atzerriko hizkuntzan idatzitako testuak errazago sortzeko.</p> <p>-Hainbat iturritako informazioa bilatzea, hautatzea eta prozesatzea, liburutegiak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak oinarri hartuta.</p> <p>-Ereduak oinarri hartuta, testu laburrak sortzea.</p> <p>-Testu idatzian puntuazio-markak erabiltzea, perpausak antolatzeke eta testuei forma emateko (paragrafoak eta adierazitako ideien antolaketa eta ordenatzea).</p> <p>-Oinarrizko ortografia- eta puntuazio-arauek erabiltzea eta horiek komunikazio idatzian duten garrantzia aitortzea.</p> <p>-Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, atzerriko hizkuntzaren bitartez testuak sortzeko, informazioa transmititzeko,</p> <p>elkarrekin komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.</p> <p>-Paperean eta euskarri digitalean dauden testu idatzien aurkezpena zaintzeko interesa agertzea.</p> <p>-Egokitzapenari, koherentziari eta zuzentasunari dagokionez, norberaren testu idatziak berrikustekak duen garrantzia balioestea.</p> <p>-Idatziz adierazteko konfiantza eta inizatiba izatea.</p>

## 8. KONTU KONTARI

Ikastetxean lantzen diren hiru hizkuntzak kontuan izanik, hauek izango dira hizkuntza bakoitzean landuko diren jarduera nagusiak:

EUSKARA	GAZTELERA	INGELESA
<i>Narrazio literarioa</i>	<i>Autobiografia</i>	<i>Posterra</i>
<p>-Nola landu narrazioa?</p> <p>-Narrazio baten amaiera asmatu</p> <p>-Ealdi batzuen bitartez irudi bat asmatu (irudimena lantzeko)</p> <p>-Ipuin klasikoa moderno bihurtu</p> <p>-Entzundakoaren ildotik istorio labur bat asmatu.</p> <p>-Amaierako lana: argazki bat oinarri izanda istorio bat asmatu protagonistak haiek direlarik</p>	<p>-Nola landu autobiografia?</p> <p>-Biografia eta autobiografiaren arteko ezberdintasunak identifikatu</p> <p>-Entzundakoaren harira, famatu baten biografia kontatu behar dute.</p> <p>-Amaierako lana: bakoitzaren autobiografia egin.</p>	<p>-Nola egin poster bat?</p> <p>Glogster programaren bitartez bakoitzaren posterra egin. Bertan agertu beharrekoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Autobiografia bat</li> <li>• Egun arrunt batean egiten duzun bizitza</li> <li>• Argazkiak/Irudiak</li> </ul>

Ikasgai bakoitzean zer landuko den azaldu eta gero, euskal hizkuntzan zehatz-mehatz landuko dena azalduko dut; hau da, ni euskara irakasle izanik, nola planteatuko eta antolatuko nituzkeen ariketa guztiak.

## 9. EUSKAL HIZKUNTZAKO UNITATE DIDAKTIKOA

Euskarako ikasgai landuko dena narrazio literarioa izango da. Horretarako, lehenengo eta behin narrazioa bateko atalak, edo zatiak bereizi behar dira. Behin hori landu eta gero, etengabeko praktika batean arituko dira ikasleak. Narrazio testu ezberdinak landuko dituzte, modu ezberdinetan. Hona hemen lehenengo mailako ikasleentzako prestatutako unitate didaktikoa:

### 1. Saioa (50 min)

**Helburu didaktikoa:** Unitatearen helburu orokorra azaldu eta narrazio literarioaren gaineko informazioa eskuratu.

Lehenengo saioan, amaierako lana zein izango den azalduko zaie ikasleei, hau da, narrazio literario bat idatzi beharko dutela. Horretarako unitatean zehar, teoria azaltzeaz gain, zenbait ariketa ezberdin egingo dituzte idazteko trebetasuna pixkanaka-pixkanaka garatzeko.

Unitatea azaldu eta gero, brainstorming teknika erabiliko dute ariketa bat egiteko. Ikasleen aurrezagutzak jakiteko metodo honetaz baliatuko naiz eta gaiaren gainean bururatzen zaien guztia arbela digitalean apuntatuko dut. Gero, teoria azaltzerakoan, zein elementu zeuden ondo eta zein txarto ikusiko dituzte ikasleek.

Azkenik, prestatutako fitxa bat banatuko zaie ikasleei; “Narrazioa nola landu?”. Bertan narrazioan kontuan hartu beharreko atal guztiak azaltzen dira eta denon artean ahoz gora irakurri eta azalduko ditugu.

(10') → Unitatea azaldu, amaierako lana azaldu.

(10') → Brainstorming.

(30') → FITXA: “Narrazioa nola landu?” (Ikus: 1 FITXA eranskinetan, 40.or)

## 2. Saioa (50 min)

**Helburu didaktikoa:** Taldean lan egiten ikasi, eta gai izatea narrazio baten ordena antolatzeko.

Klaseari hasiera emateko, aurreko eguneko edukiak gogoratuko ditugu, beraz, ikasleek fitxa aterako dute berriz eta birpasa arina egingo dugu.

Gero, klasea 5 taldetan banatuko dut, lau taldeak eginez. Taldeak egiteko orduan, saiatuko naiz talde berdintsuak egiten, hau da, oso ona den ikasle bat, gehiago kostatzen zaion ikasle batekin jarriko dut eta beste bi nahiko ondo doazenak. Taldeak horrela sortzearen helburua, gehien dakienak gehiago kostatzen zaionari laguntzea da, modu honetan ikasleek gehiago ikasiko dute, eta berain taldekideen laguntza izanik asko hobetu dezaketela pentsatzen dut.

Jarraitzeko “Estopean” fitxa banatu, eta taldeka lan egingo dute. Istorioa ordenatu beharko dute ikasleek. Bukatzeko, zuzendu egingo dugu ariketa eta etxeko lan moduan amaiera bat jarriko diote kontaketa; bakoitzak berea.

(15') → Edukiak gogoratu

(5') → Taldeak sortu.

(20') → “ESTOPEAN” fitxa. (Ikus: 2 FITXA eranskinetan, 47.or)

(10') → Zuzendu + Etxean amaiera asmatu.

## 3. Saioa (50 min)

**Helburu didaktikoa:** Teknologia berrien erabilera sustatu eta horien bitartez narrazioa lantzea.

Klasearen hasieran, ikasleek etxean egindako kontaketa amaiera irakurriko dute. Bakoitzak berea. Etxeko lanak egiten ez dituztenek puntu bat gutxiago izango dute amaierako notan, beraz, apuntatuko dut nortzuek egin duten eta nortzuek ez.

Jarraitzeko, “Emakumea eta itsasoa” testua banatuko zaie ikasleei, bururatzen zaizkien ideia guztiak idatzi beharko dituzte. Ariketa honen helburua sormena lantzea da. Emakume baten eta bere semearen irudia imajinatu behar dute eta horren ostean galderei erantzun.

Bukatzeko, arbela digitala erabiliko dute, narrazioaren eduki edo atalen gainean joko edo ariketa batzuk lantzeko.

(20') → Ikasleen amaierak irakurri eta baloratu.

(15') → Brainstorming → “EMAKUMEA ETA ITSASOA” fitxa. (Ikus: 3 FITXA eranskinetan, 49.or)

(15') → Arbel digitalean ariketa batzuk landu narrazioaren edukien / atalen gainean.

## 4. Saioa (50 min)

**Helburu didaktikoa:** Imajinazioa lantzea, eta ipuin klasikoak moderno bihurtzeko gai izatea.

Klasea hasi bezain pronto, Txupagorritxoren kontaketa banatuko zaie ikasleei, hau Txanogorritxoren bertsio moderno da. Irakurketaren ostean bi bertsioen arteko ezberdintasunak aurkitu beharko dituzte.

Gero, ikasle bakoitzak bere ordenagailua aterako du eta Interneten bidez ipuin klasikoaren bertsio modernoak aurkitu behar dituzte.

Bukatzeko, taldeka jarriko dira ikasleak, aurreko eguneko talde berdinak, eta ipuin klasiko bat banatuko zaio talde bakoitzari, zoriz, horien bertsio modernoak egin beharko dute hurrengo egunean klasean.

(20') → TXUPAGORRITXO irakurri eta komentatu, bertsio klasiko eta modernoaren arteko ezberdintasunak aipatu. (Ikus: 4 FITXA eranskinetan, 50.or)

(30') → Ordenagailuak atera eta ipuin klasikoaren bertsiotik moderno gehiago bilatu behar dituzte + ipuin klasiko bat talde bakoitzari ezarri.

Narratioak: "Eduinezuri", "Hiru txerriak", "Pinotxo", "Banbi", "Hansel eta Gretel".

### 5. Saioa (50 min)

**Helburu didaktikoa:** Taldean lan egiten ikasi, eta imajinarioa garatzea.

Gaurko klasea taldean lan egiteko erabiliko dute. Aurreko egunean zozketa bidez egokitutako ipuin klasikoaren bertsiotik moderno egin beharko dute ikasleek. Lehenengo eta behin, eskema bat egingo dute eta gero eskema horretatik abiatuta idazlana egingo dute.

Klasearen amaieran, talde lana entregatu beharko dute eta amaierako notaren %20 balioko du lan honek.

(50') → Bertsiotik moderno bihurtu, taldeka. (2 orrialde).

### 6. Saioa (50 min)

**Helburu didaktikoa:** Teknologia berrien erabilera sustatu, horretarako klaseko blogean haien narratioak igoko dituzte, eta beste taldekoen idazlanak irakurri eta baloratuko dituzte.

Talde lan honek amaierako notaren %20 balio izango du, irakasleak %15 baloratuko du eta ikasleek beraien klase-kideen talde lanak baloratuko dituzte, arrazoituz, eta notaren %5 balio izango du.

(30') → Idatzitako narratioak zuzenduta itzuli eta ikastetxeko blogean idatziko dituzte.

(20') → Besteen narratioak irakurri eta komentarioak egin, baloratu...

### 7. Saioa (50 min)

**Helburu didaktikoa:** Ahozkoasuna landu besteen istorioak komentatuz, idazlan laburra egunerokotasuna azalduz.

Klasea hasi bezain pronto, klase-kideen lanak komentatuko ditugu, zer iruditzen zaie, zein gustatu zaie gehien, zein gutxien, entretenigarriak izan diren edo ez, etab.

Gero, ipuin bat entzungo dute. "Ikusezina naiz". Bertan mutiko baten egunerokotasuna kontatzen du narratzaileak, egunero lanera joaten denean zer egiten duen. Entzun eta gero, azaldutako teoria kontuan izanik, narratioaren ezaugarriak komentatuko ditugu. Horretaz gain entzun bitartean, zenbait galderari erantzun beharko diete.

Bukatzeko, "Ikusezina naiz" bezalako idazlan labur bat egin behar dute ikasleek, bertan egunero esnatzen direnetik, ohera bueltatzen diren arte zer egiten duten azalduz.

(10') → Aurreko egunean irakurritako istorioak komentatu.

(20') → Entzumena "Ikusezina naiz" + fitxa. (Ikus: 5 FITXA eranskinetan, 55. or)

(20') → Idazten hasi

### 8. Saioa (50 min)

**Helburu didaktikoa:** Ahozkoasuna landu, beste klase-kideei komentatuz haiek idatzitako egunerokoa.

Aurreko egunean hasitako idazlana bukatzeko denbora emango zaie ikasleei. Bukatzen dutenean beste ikasleen aurrean ahoz gora irakurri edo kontatuko dute haien egunerokoa.

Klasea bukatu baino lehen, amaierako lana berriro ere azalduko zaie ikasleei eta egiteko astebete dutela esango zaie.

Ikasle bakoitzak koadrilako argazki bat aukeratu behar du eta istorio bat asmatu behar dute argazkian agertzen diren pertsonaiak kontuan izanik. Haien bizitza errealeko momentu hori kontatu behar dute, zer gertatu zen arinago, zer geroago, nortzuk diren, zer egiten duten bertan, etab. (2 orrialde)

Astebete barru entregatzen ez duenak 0 bat izango du notan eta amaierako notaren %40 balio du.

(20') → Idazten bukatu

(20') → Ahoz gora hiruk edo lauk irakurri, komentatu

(10') → Amaierako lana azaldu. (Ikus: 6 FITXA eranskinetan, 56.or)

### [PROZESUA]

Ikasleei astebeteko epea emango zaie lana entregatzeko. Aste horretan zehar, euskarako 4 saio izango dituzte; saio horietan zehar denboratxo bat eskainiko zaie ikasleei honako hau egiteko:

- Lehenengo egunerako, istorioaren eskema eginda ekarriko dute ikasleek. Irakasleak eskema guztiei begiradaxo bat botako die. (Ikus: 7 FITXA eranskinetan, 57.or)
- Bigarren egunean zalantzak argituko dira. Ikasleak jada idazten hasi dira eskematik abiatuta eta zalantzarik balego bigarren egunean argituko litzateke.
- Hirugarren egunean zirriborroa aurkeztuko dute. Irakasleak begiradaxo bat botako dio eta zenbait gomendio emango dizkie ikasleei. (Ikus: 8 FITXA eranskinetan, 58.or)
- Laugarren eta azkenengo egunean, azkenengo zalantzak argituko dira.

### 9. Saioa (50 min)

**Helburu didaktikoa:** Teknologia berrien erabilera sustatu.

Lanak bueltatu bezain laster irakaslea ikasleekin batuko da eta bakoitzari esan beharrekoa adieraziko dio. Feedback horren osteko zuzenketak egin ondoren haien lanak blogera igoko dituzte.

Ikasleek haien autoebaluazioa egiteko aukera izango dute, merezi duten nota jarriko dute irizpide batzuk kontuan izanik (Ikus: 10 FITXA eranskinetan, 60.or)

(50') → Idazlanak bueltatu eta blogera igoko dituzte, haiek ere ebaluatuko dituzte beste ikasleak. (Ikus: 9 FITXA eranskinetan, 59.or)

### EBALUAZIOA

Ikasleek unitatean zehar egindako lanak ehuneko hauen arabera ebaluatuko dira:

-Etxeko lanak egin, euskararen erabilera egokia (%10)

-Lanak (%70)

-Bertsio modernoa (%20)

-(%5) ikasleak

-(%15) irakasleak

-Egunerokoa (%10)

-Amaierako lana (%40)

-(%5) auto-ebaluazioa

-(%5) ikasleak

-(%35) irakasleak

-Taldeko jarrera (%15)

-(%10) ikasleak

-(%5) irakasleak

-Teknologia berrien erabilera egokia (%5)

Ikasleak ebaluatzeko honako irizpide hauek izango dira kontuan:

-Hainbat testu mota ulertzeko gai da.

-Gai batzuen inguruan ikasle bakoitzak bere iritzia txukun eman du, argudioak garbi adieraziz eta ordena bati jarraituz.

-Gelan landu diren idatzizko testuak landu ditu.

-Iritziak ematerakoan, edota elkarrizketetan, besteen argudioak errespetuz eta arretaz entzuten saiatzen da.

-Hainbat testu sortzeko, dokumentazio iturriak ezagutu eta erabiltzen ditu.

-Lexiko aberatsa, zehatza, eta komunikazio beharrei egokituaz ezagutzen du eta erabiltzeko gai da.

-Ipuin labur batzuk idazteko gai da, egitura egokiak erabiliz, eta kohesio elementu egokiak aukeratuz.

Horretaz gain, ipuinak baloratzeko orduan beren-beregi sortutako ebaluazio-orria erabiliko da. (Ikus 11 FITXA eranskinetan, 61.or)

KONTU KONTARI			
DATU OROKORRAK	GAITASUN ESPEZIFIKOAK	HELBURU DIDAKTIKOA	EBALUAZIO IRIZPIDEAK
<p><b>Maila: 1.DBH</b></p> <p><b>Ordu: 50 minutu saio bakoitza</b></p> <p><b>Ikasle: 20</b></p> <p><b>Gaitasun orokorrak:</b></p> <p><b>-Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.</b></p> <p><b>-Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.</b></p> <p><b>-Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.</b></p>	<p>1.Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea.</p> <p>2.Ahoz eta idatziz, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta solasteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz.</p> <p>3.Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko.</p> <p>4.Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, erlazioan dauden hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.</p> <p>5.Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea.</p> <p>6.Norberaren ikaskuntza-</p>	<p>-Narrazio literarioaren gaineko informazioa eskuratu.</p> <p>-Taldean lan egiten ikasi.</p> <p>-Teknologia berrien erabilera sustatu.</p> <p>-Irudimena landu ipuin klasikoak moderno bihurtuz.</p> <p>-Blogen erabilera sustatu.</p> <p>-Taldekideen lanak baloratzen ikasi.</p> <p>-Ahozotasuna landu</p>	<p>-Hainbat testu mota ulertzeko gai da.</p> <p>-Gai batzuen inguruan ikasle bakoitzak bere iritzia txukun eman du, argudioak garbi adieraziz eta ordena bati jarraituz.</p> <p>-Gelan landu diren ahozko eta idatzizko testuak ulertu ditu.</p> <p>-Iritziak ematerakoan, edota elkarrizketetan, besteen argudioak errespetuz eta arretaz entzuten saiatzen da.</p> <p>-Hainbat testu sortzeko, dokumentazio iturriak ezagutu eta erabiltzen ditu.</p> <p>-Lexiko aberatsa, zehatza, eta komunikazio beharrei egokituaz ezagutzen du eta erabiltzeko gai da.</p> <p>-Ipuin labur batzuk idazteko gai da, egitura egokiak erabiliz, eta kohesio elementu egokiak aukeratuz.</p>



	prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio estrategiak transferitzeko.		
--	---	--	--

## 10. UNITATE DIDAKTIKOAN ERABILITAKO BALIABIDEAK

- Ikastolen elkartea (2002). Euskara literatura 1 DBH - Lehen zikloa. Or. 29, 47, 56 Donostia: Elkar.
- IKA

### Web orrialdeak

- IRIONDO, A. "Ikusezina naiz" in Gazte eta umeentzako ipuinak. Kontsultatua: 2013ko maiatzaren 25ean, orrialdea: [http://www.etxegiroan.com/gazteak\\_euskara.php](http://www.etxegiroan.com/gazteak_euskara.php)
- San Jose Ikastetxea. Kontsultatua: 2013ko apirilaren 17an, orrialdea: <http://sanviator.net/2013/02/18/50-aniversario-de-los-antiguos-alumnos-de-san-jose-de-basauri/>
- Lagunen koadrila argazkia. Kontsultatua: 2013ko maiatzaren 20an, orrialdea: <http://redacoesabtw.blogspot.com/2010/09/amigos.html>
- Eranskinen argazkia. Kontsultatua: 2013ko maiatzaren 20an, orrialdea: <http://www.annefrank.org/es/Ana-Frank/Un-diario-a-modo-de-mejor-amiga/La-escritora-Ana-Frank/>
- Narrazioa 1. Slideshare. Sastarri. Kontsultatua: 2013ko apirilaren 28an, orrialdea: <http://www.slideshare.net/sastarri/narrazioa-1>
- Narrazioa 2. Slideshare. Sastarri. Kontsultatua: 2013ko apirilaren 28an, orrialdea: <http://www.slideshare.net/sastarri/narrazioa-i>

## 11. ONDORIOAK

Hizkuntzen trataera bateratua proiektu moduan aurrera ateratzea ezinbestekoa dela pentsatzen dut, denbora aldetik asko aurreratuko litzatekeelako, eta ikasleek ere gehiago ikasteko eta modu eraginkor batean ikasteko aukera gehiago daukatelako.

Hala ere, zailtasun ugari dituela uste dut. Alde batetik, irakasle guztien elkarlana ezinbestekoa delako, hau da, haien artean etengabeko batzarrak egitea beharrezkoa da, ikasleen egoera komentatzeko eta proiektua batera aurrera eramateko, eta horrek denbora nahiko eskatzen du. Beste alde batetik, irakasle guztiek batera egin behar dute lan, hau da, ezin dira atzeratu edo aurreratu. Unitatearen amaierara batera heldu behar dira, parean bukatu, bestela oso zaila izango da beste unitateekin aurrera jarraitzea.

Horretaz gain, proiektu honen helburua jarraipena izatea da. Lehenengo mailan proba moduan egitearen arrazoia hori da, gero aurrera egitea, bai urtean zehar, eta bai beste mailatan ere. Beraz, proiektu honek aurrera egiten badu, laugarren mailan ere ezartzeko gai izatea espero da, eta ikasleek gogoz hartzea.

Ikastetxetik ikasleak irteten direnean, hizkuntzak erabiltzeko orduan gaitasun handiagoa izango dutelako esperoan egiten da proiektu hau. Nire ustez, modu honetan, hizkuntzen arteko erlazioa ikustea erraza da eta ikasten dutena transferitzeko gai izango dira. Transferentzia horiek beste hizkuntzetan erabilgarri egiten badituzte askoz ere arinago ikasiko dute hizkuntza bat, eta nahiz eta batzuetan akatsak egin, zuzentzeko aukera izango dute, baina behintzat hizkuntza horretan hitz egiten ausartuko dira, beste hizkuntzekiko harremana ikusiko dutelako.

Proiektu honen helburua euskararen erabilera suspertzea ere bada. Ikasleek euskaraz irakurriz, idatziz eta kontatuz, pixkanaka-pixkanaka gaitasun handiagoa izango dute gauzak adierazteko orduan eta akatsak egitearen beldur horri aurre egitea espero da. Modu honetan, ikastetxe barruan behintzat euskaraz mintzatzea espero da, horrela euskararen erabilera areagotzeko. Horretaz gain, euskararen gaineko zaletasun handiagoa espero da.

Gainera, antolatu dudan unitateari erreparatzen baldin badiogu, haien bizitza errearekin etengabeko lotura duela argi dago, horrela, entrenigarriagoa eta baliagarriagoa ikusten dute lanak egiteko orduan. Horretaz gain, irudimena etengabe lantzen ari dira, eta hori oso erabilgarria da beste edozein eremutan erabiltzeko, irudimena, sormena, oso beharrezkoak baitira.

Bukatzeko, idazmena lantzeaz gain, ahozkotasuna, irakurmena eta entzumena landu dute. Unitate batean trebetasun hauek guztiak lantzea ezinbestekoa da, modu eraginkor, erabilgarri eta entrenigarri batean ikasteko era lortu dudala pentsatzen dut, ez baitaude modu behartu batean sartuta.

Laburbilduz, hizkuntzen trataera bateratua proiektu oso erabilgarri eta eraginkorra dela pentsatzen dut. Ikastetxe guztietan derrigorrez ezarri beharreko metodologia da, bai ikasle eta bai irakasleentzako metodo egokia da eta hauen erabilera sustatzeko erabilgarria. Hala ere, hasiera batean lan handia eskatzen duen proiektua da, ikastetxeko laguntzaz gain, kanpoko laguntza ere beharrezkoa da, hau da, argialetxeak, idazleak etab.-en laguntza. Baina denon laguntzaz hizkuntzen trataera bateratua aurrera eraman daitekeela pentsatzen dut.


### ERANSKINAK



<http://www.annefrank.org/es/Ana-Frank/Un-diario-a-modo-de-mejor-amiga/La-escritora-Ana-Frank/>

1 FITXA

NARRAZIOA NOLA LANDU?



<http://www.slideshare.net/sastarri/narrazioa-i>

**Hasierako egoera:**

Egoera egonkor bat dago. Kontaketako zenbait elementuren aurkezpena egiten da: noiz gertatu, non, nor d(ir)en pertsonaia(k), eta egoeraren nondik norakoak.

**Arazoa:**

Hasierako egoera aldarazten duen edozein ekintza, edo gertakari da. Protagonistari sortzen zaion konplikazio batek narrazioaren *orientabidea* baldintzatzen du: konpondu behar den arazo bat, argitu behar den kontu bat, gainditu behar den ezbehar bat, ase nahi den desio bat lortzea

**Ekintzak:**

Arazoak edo konplikazioak eragiten dituen gertakari eta ekintzen katea da. Hots, arazoari aurre egiteko, pertsonaiek egiten dituzten ekintzen bilduma: zailtasunak, haserreak, arriskuak, ibilerak, hartzen dituzten erabaki berriak, etab. Bestela esanda: gertaeren segida. Narrazioko zatirik luzeena izaten da gehienetan, eta gertaerarik gehienak jasotzen ditu.

### Ondorioa:

Gertaera erabakigarri bat dago arazoak sortutako ekintzei gailurra ematen diona.

### Bukaerako egoera:

Beste egoera egonkor batera iristen da kontaketa, hasieratik bestelakoa. Bost urratseko egitura hori ez da berdin agertzen narrazio-testu guztietan.

- Ipuin eta narrazio testu laburretan, molde tradizionalakoetan batez ere (ez hainbeste modernoetan), pauso horiek, ordena gorabehera, bere horretan ageri dira.
- Narrazio luzeetan, eleberrietan kasu, errepikaria da. Hots, bukaerako egoera beste kapitulu edo sekuentzia baten hasierako egoera da, kateaketa horren bidez testu narratiboak bere progresioan jarrai dezan. Sekuentziak edo kapituluka agertzeaz gain, ordea, bere osotasunean eskema horretara errenditzen da sarritan istorio luzea ere

### NOLA KONTATZEN DA?

- Kontaketa teknika (narrazioa, deskribapena, elkarrizketa, pentsamenduak)
- Ekintzak / Argumentua
- Gaia
- Narratzailearen ikuspuntua
  - ✓ Orojakilea
  - ✓ Objektiboa
  - ✓ Aktorea
- Lekua
- Denbora
  - ✓ Fikzioaren denbora
  - ✓ Narrazioaren denbora: lineala, saltoak.
- Erritmoa
  - ✓ Modu hedakorrez
  - ✓ Modu trinkoz
- Pertsonaia
  - ✓ Protagonista / Antagonista
  - ✓ Bigarren mailakoak
- Polifonia (ahotsak)
- Diskurtso moduak
  - ✓ Estilo zuzena
  - ✓ Zehar estiloa
  - ✓ Zehar estilo librea
- Sinesgarritasuna

<http://www.slideshare.net/sastarri/narrazioa-1>

### Kontaketa teknika

Narrazio-testu bat oso gutxitan agertzen da narrazio huts moduan, dena narrazio. Narrazio-egitura ekintzak agertzen direnean erabiltzen da batez ere; deskribapena ere ia beti agertzen da (pertsonaiak eta tokiak marrazterakoan), baita elkarrizketa ere (pertsonaiak elkarrekin ari direnean), edo bakarriketa.

### Ekintza

Narrazioaren nondik norakoa da; egituraz aritu garenean aipatu diren bost urratsen segida, alegia. Narrazio motzetan ekintza bat izaten da, bakarra eta nagusia. Luzeetan, ordea, eleberri askotan agertzen den bezala, ekintza bat izaten delarik ere nagusia, haren inguruan bigarren mailako beste batzuk ere ageri dira, nagusi hura osatu, argitu egiten dutenak. Ekintza, istorio, pasadizo horien multzoak osatzen du narrazioaren argumentua.

### Gaia

Ipuinak edo eleberriak aditzera eman nahi duen mezua da; hots, narrazioko ekintzen azpian autoreak ezkututzen duen intentzioa. Testu guztietan bezala, narrazioetan istorioak gai jakin eta zehatz bat garatzen du, errealitatean edo fantasian iturri duena. Narrazio onak, gainera, giza interesa duen gairen bat garatzen du. Narrazio literarioak irakurlearen gozamenerako sortuak badira ere, horretaz aparte, badute bestelako zereginik ere: egoera bat salatu, giza jokamolderen bat goraipatu, polemika sortu, jarraibide etiko batzuk eman, etab.

### Narratzailearen ikuspuntua

Kontalariarena nork egiten duen adierazten du. Idazle eta kontalari bi kontzeptu eta errealitate direla ere kontuan hartu beharra dago

Izan daiteke kontalaria istoriotik kanpo egotea, eta orduan 3.pertsonan datoz istorioak.

- **Orojakile** deritzona izan daiteke izan liteke kontalaria: pertsonaien sentimenduak, haien jokaeren zergatiak, gertaeren nondik norako guztiak, deskribapenak... dena zehatz-mehatz ezagutzen duena da.
- **Objektiboa.** Beste batzuetan, kamera bat hartu eta eskainitako istorioak balira bezala ageri zaizkigu gertaerak, baina pertsonaien ekintzak baino ez ditu ematen, inoiz ez haien intentzio, desio, barne borroka eta horrelakorik. Kontalari objektibo edo behaviorista deritza horri.
- **Narratzaile aktorea.** Gerta liteke istorio barruko kontalaria izatea ere. Fikzio edo kontaketa pertsonaietako bat (edo batzuk) d(ir)a orduan kontalari eta lehenengo pertsona emana dator gehienetan. Molde hau, gaur egun, asko erabiltzen da barne bakarriketak eta antzerakoak idazteko; baita testu autobiografikoetan ere. Narratzailea aktorea da. Zenbaitetan, 2.pertsonaren teknika ere erabiltzen da, beste norbait pertsonaia horri hitz egiten ari balitzaio bezalako sentsazioa emateko.

### Lekua

Gertakariak non kokatzen diren esan nahi da; ambientazioa, alegia. Non hori izan daiteke: etxe barnekoa / kanpoko, errealista / fantastikoa, objektiboa / subjektiboa... ez dago esan beharrik non horretan deskribapenak tarte handia duela.

### Denbora:

Bereizketa batzuk egitea komeni da. Igorleak testua noiz erreal batean sortzen du, jakina: orain, aurten, duela bost urte, XVII. mendean, etab. Noiz historiko hori narraziotik kanpoko errealitatea da, gu bizi garen errealitatea. Narrazioaren barrura so eginik, ordea, bestelako denbora batzuk ere aipatu eta bereizi behar izaten dira:

#### ✓ Fikzioaren denbora

Fikzioko gertakizunak noiz gertatzen diren, noiztik noiz arte. Esate baterako, protagonistaren jaiotzatik heriotzara artekoa; edu egun bakar batekoak, etab.

#### ✓ Narrazioaren denbora

Ekintzak narratzaileak noiz narratzen dituen; ekintza horiek iraganekoak, mementokoak ala etorkizunekoak diren harentzat. Denboraren **tratamendu** hori bi eratara ager daiteke:

- a) Denbora kronologikoa jarraituz: lehen, orain eta gero. Ekintzak nola gertatu, hala eman. Kontaketa **lineala** deritza horri.

- b) Denboran **saltoak eginez**, polizia eleberri eta filmetan hain erabilia den *flashbacka*-ren (atzera salto) teknikaz baliatuz.

Esan gabe doa aditzak berak zer rol nabarmen duen narrazioetan. Denborazko aditzondoak ere garrantzi handia dute.

### Erritmoa

Fikzio-denbora laburra denean – egun bateko gorabeherak adibidez – **modu hedakorrez** edo **saretuan** jokatu behar izaten da: deskripzio asko, pertsonaien arteko elkarrizketa ugari, barne-bakarrizketa, pertsonaien jarreraren azalpenak, etab. Era horretara, erritmo motela, geldoa hartzen du narrazioak.

Fikzioaren denbora zabala bada, aldiz – bizitza oso bat esate baterako –, gertaerak **modu trinkoz** kontatzera jotzen da, denbora luzeak motzean eman behar baitira: pasarte-elipsi asko, laburpenak, deskripzio gutxi, etab.

### Pertsonaiak

Narrazio batean pertsonaia guztiak ez dute garrantzi maila bera. Protagonismoaren arabera, pertsonaia nagusiak eta bigarren mailakoak izan ohi dira.

- ✓ Nagusien artean, **protagonista** dago. Horren biran daude narrazioko gertakizun nagusiak. **Antagonista** ere egon liteke. Istorioko ekintzek korapiloa sor dezaten, norbait agertu behar zaio protagonistari helburuetan aurka egiten: horixe da antagonista.
- ✓ Bigarren mailakoak **laguntzaileak** dira. Protagonistaren eta antagonistaren helburu kontrajarrietan bataren edo besteren alde agertu ohi dira ekintzen matazan. Aipamen hutsekoak edo 3. Mailakoak ere izan litezke, eleberrietan batik bat.

Narrazioetako pertsonaiak gizakiak, animaliak, gauzaki magikoak, etab. izan daitezke.

### Narrazioetako polifonia

Narrazioan, ahots enuntziatzaile asko nahasten dira. Horien konbinazio eta gurutzaketari deritza polifonia. Aparteko garrantzia hartzen du narrazio literarioetan.

### Diskurtso moduak

Elkarrizketa edo bakarrizketaren bidez, eta narrazioaren eta deskripzioaren harian tartekatuz, hiru modutara joka daiteke pertsonaien ahotsak kontaktetan txertatzeko:

- Estilo zuzena

Narrazioaileak protagonistaren edo edozein pertsonaiaren hitzak bere hartan, ezer aldatu gabe, zuzen-zuzenean jasotzen dituen.

- Zehar estiloa

Pertsonaiek esandakoa zeharka kontatzen du narrazioaileak, bere erara. Aditza 3.pertsonan doa eta, denborari dagokionez, lotura zehatza izan behar dute aditz nagusiek (esan, erantzun, gaineratu, galdetu, itaundu... motakoak) eta txertatuek (-(e)la, -en, -t(z)eko... eta gisako menderagailuekin).

- Zehar estilo librea

Beste bien arteko modua da. Norbaitek esandakoa zehar estiloan bezala ematen da, baina aditz nagusirik gabe (esan, erantzun, galdetu...), menderagailurik gabe eta komatxo eta gidoirik gabe.

### Sinesgarritasuna

Narrazio literario bat sinesgarria izan behar du. Ez da, ordea, errealitatean erabiltzen den sinesgarritasunaren kontzeptu bera. Errealitatean ezinezkoa da txoriak elkarrizketan entzutea edo gizaki bat hegan ikustea; fabulazio literarioaren barruan, alabaina, horrelakoak sinesgarri egin behar dira, bestela ez dago joko literariorik, simulazio egokirik, ipuinik.

Hala ere, edozein ipuin edo eleberri ezin daiteke edozein lekutan kokatu. Amsterdamen edo Argentinan narrazio bat sinesgarria gerta balekigu ere, agian ez genuke sinetsiko Euskal Herriko herri txiki batean kokatuta.

Horregatik, istorioa kokatzen den **tokia** (ez da berdin hiri batean ala baserri batean kokatzea, edo Suedian ala Euskal Herrian); **garaia** (duela mende batzuetako istorioa eta pertsonaiak hangotarrak badira, ezingo ditugu Jim, Jackes, edo Peru izenez izendatu. Pertsonaia ezikasi bat ezin dugu ere modu kultuz hitz egiten jarri; edo hilik dagoen pertsonaia bat mirakulutsuki berpiztu, eta berriro ekintzan agerrarazi); eta antzekoak oso kontuz neurtu beharreko baldintzak dira sinesgarritasuna eman nahi baldin badiogu narrazio horri.

## 2 FITXA (331ORRIALDEA IKA 6.URRATSA)

### ESTOPEAN

#### -Irakur itzazu ondoko ipuin zati hauek eta ordenatu.

(1) Neska txoferraren aldamenean eseri zen aurrealdean eta atzealdean, berriz, pertsona bakarreko aulkian, mutila. Hura bakarrik konturatua zen zein autotan sartuak ziren eta hasierako susmoak baieztatu zituen, ondoko kaxa ilun hura ikusi zuenean. Hortzak estutu zituen, garrasia botako zuen bestela, eskuak kopetara eramanez.

Bitartean, neska kontu kontari ari zen txoferrarekin. Non ibiliak ziren, bata; inguru horiek esku ahurra baino hobeto ezagutzen zituela eta txabola eginga zutela soziedadeko lagunaren artean ehizarako, besteak.

(2) Ogitartekoak bukatzearekin batera ekin zioten berriro bideari, nora zeraman jakin ere ez zekitela. Hotzak ebaki egiten zuen. Eta hasiera bateko hezetasunak lanbrora eta elur xehe-xehera jo zuen jarraian. Neskak manta gorrixka atera zuen motxila gainetik eta mutilari eskaini zion, bizkarretik behera jartzeko. Muxu eman zion kopetan. Mutilak ez zion erantzun, ordea.

Azkar edo berandu norabait helduko ziren, jakina, eta besterik ez zen, telefonoren bat edo egongo zen, etxera deitzeko. Mutilari neskaren asteburu horretako irtenaldiaren aurkako zerbait bururatu zitzaion behin eta berriz, haren bota handiak doi-doi bista aurrean zituela. Neskak, berriz, buruan zuen mutila ez zela, handik aurrera, etxetik mugitu ere egingo asteburuetan.

(3) Behe-laino itxiak estaltzen zuen errepide beltza. Sudurrak baino haruntzago ikustea gauza zaila zen eta, euria ez, baina hezurak ere bustitzen zituen hezetasuna zen nagusi. Errepideaz bestaldean, itsasoa bere erronka gogorrez zaunka. Aldian-aldean, olatu gandorrek errepideraino iristen ziren, soinu gor eta bustia zabalduz. Kontrako bazterrean, mugikor eta aurrera ibiltari, motxilak gainean zeramatzen bi gazte ziren autoen argi horixkei eskua aurreratuz, behatza eskaintzen. Ez zen, halere, autorik gelditu.

(4) Argi horidun autoak pasatzen ziren, zitzu infernutiarraz belarriak minduz; oso bakan, ordea, bost minutuko aldea bai bata bestearekin. Halako batean, auto luze bat gelditu zen bi mendizaleak baino aurrerago. Benetan luzea autoa.

Behe-lainoak ez ziren marka ere ikusten uzten eta zerbait esan nahi izan zion mutilak neskari sartu aurretik, baina ordurako galdetzen hasi zen neska: <<norako esan duzu?>>, <<primeran orduan!>>.

(5) Neskari ez zitzaion batere atsegina egin afizio hura eta gustura esango zion zerbait hain ongi ikasia zuen naturaren aldeko diskurtsoetik, baina hobe bakea izatea eta isiltzea erabaki zuen. Eguraldiaren gordintasuna izan zuten hurrengo solasgaia. Askok ez zutela ezagutu hura bezain negu gogorrik, horretan biak bat etorri ziren, izotza baitzen nagusi eta elurra noiznahi botatzen baitzuen.

Txoferrak, bestalde, euskalduna izaki, konfiantza gehiago ematen zion neskari. Haren <<zer moduz hor atzean?>> galderari, <<ongi>> juxtua esateko ez besterako zabaldu zuen ahoa mutilak. Zeharka ere ez zion alboko kutxa luzeari begiratzen. Ondoko leihatilatik so eraman zuen begirada.

(6) Ez inongo herritako argirik, ez gizakirik inguruetan eta, gau izugarria gainean izanik, zerbait jateko asmoz gelditu ziren. Motxilak ireki eta zilar paperean bildutako goizeko patata tortillazko ogitartekoak ahorratu zituzten, ogi malgu hari haginkada luzeak eginez. Azkeneko herrian ogitarteko berorik erosi izan balute sikiera... <<Berehala gaude eta, atzeratu besterik ez gara egingo>>. Neska hitz egin eta hitz egin aritu zitzaion, beldur izuak uxatzearen. Mutilak, berriz, barneratu egiten zituen bereak, erabateko isiltasunean murgilduta.

**-Ene bada! Zer gertatuko ote? Amaierarik onena, bakoitzak asmatzen duena. Beraz, eman iezaiozu bukaera ipuin honi:**

### 3 FITXA (358.ORRIALDEA IKA 6)

#### EMAKUMEA ETA ITSASOA

-Irakur itzazu ondoko hiru esaldi hauek. Irakurritakoan, itxi itzazu begiak eta, minutu batean, saia zaitetz burura etorri zaizuna irudikatzen.

Emakumea eserita zegoen	Itsasoari begira zegoen	Bere haurra zuen gogoan
-------------------------	-------------------------	-------------------------

-Orain, erantzun iezaiozu ondoko galdera hauei. Bertan zuk zeuk irudikatutakoari buruzko informazioa eskatuko zaizu. Saia zaitetz ahalik eta argibide gehien erabiltzen:

#### 1) EMAKUMEA ESERITA ZEGOEN

- Emakumea gaztea edo zaharra da? Zenbat urte dauzka?
- Nolako gorputza dauka: altua / txikia, lodia / argala...?
- Nolako ilea dauka? Zein koloretakoa da?
- Nola dago jantzita? Zer dauka soinean?
- Nola dago: alai / goibel, negarrez / barrez, isilik / kantatzen...?
- Non dago eserita: aulkian / lurrean / haitzetan / autoan...?
- Nolakoa da bere eserlekua? Deskribatu:
- Zer dago inguruan: jendea / inor ez, etxeak / ezer ez...?

#### 2) ITSASOARI BEGIRA ZEGOEN

- Zer nolako eguraldia egiten du?
- Nola dago itsasoa: bare / zakar, kolorea...?
- Zer dago itsasoan: itsasontzirik / uharterik / animaliarik / jenderik?
- Zein sentimendu sortarazi dio itsasoa ikusteak?

#### 3) BERE HAURRA ZUEN GOGOAN

- Haurra zer da: neska / mutila?
- Nolako haurra da, gaztea edo nagusia? Zenbat urte dauzka?
- Zergatik du gogoan? Zer gertatu da?

### 4 FITXA

#### TXUPAGORRITXO

-Irakur ezazu "Txanogorritxo" betiko ipuinaren bertsio modernoa:

Euskal Herriko hirixka zoragarri batean, Gasteizen alegia, neskatila bat bizi da bere amarekin. Neskatilak amonak oparitutako txupa gorria eraman ohi du beti soinean eta, hortaz, auzoko guztiek *Txupagorritxo* deitzen diote.

Txupagorritxo ez da oso esanekoa eta ez die jaramon handirik egiten amak ematen dizkion aginduei, Horrexegatik, hain zuzen, gertatu zaio gertatu zaiona:

-Txupagorritxo! Etorri hona, enkargu bat egin behar didazu eta!



Txupagorritxok atsekabe aurpegia jarrita, amarengandik ihes egin nahian kalerako bidea hartu eta, atea ixterakoan, ama agertu zaio eta itxaronarazi dio:

-Amonatxo ikerketa bat egiten dabil, asmakizun inportante bat egiteko txip honen beharra dauka, eramango diozu mesedez? Bestela, ezin izango du ikerketa bukatu. Begira, dena motxila honetan jarri dizut. Eta ez zaitez bidean geldi, auzoa oso arriskutsua da eta!

-Lasai ama! – erantzun dio Txupagorritxok.

Txipa motxilan hartuta, etxetik atera eta haserre samar abiatu da, alde batetik, lagunekin geldituta zegoelako eta, bestetik, amona hiriko beste muturrean bizi delako. Hiri ederra den arren, ez da oso gustura bizi Txupagorritxo; izan ere, gero eta bakartiago sentitzen da, Beraz, edozein aukeraz baliatzen da lagunekin egoteko.

-Amonaren etxera joan aurretik, lagunekin geratuko naiz apur baten – esan du bere baitan.

Plazaz plaza ibili dira Txupagorritxo eta lagunak eta, halako batean, Mikel, auzoko espioia, agertu da.

-Horra hor Txupagorritxo – pentsatu du Mikelek. – Amonari eramango dio behar duen txipa, betiko legez. Oraintxe bertan ken diezaioket eta ondotoxo etorriko litzaidake, baina amonaren etxera Txupagorritxo baino lehenago heltzen ahaleginduko naiz – izan ere, amonak etxean txip edo tramankulu gehiago ote duen galdetu dio bere buruari Mikelek.

Txupagorritxo eta lagunak etxera zihozenean, elkar agurtu dute, eta hara joan da Mikel.

-Epa Txupagorritxo! – esan dio espioiak. – Zer berri?

-Aizu Mikel! Utzi pakean, presaka nabil eta! – erantzun dio neskatalak. – Amonaren etxera joan beharra daukat eta lehenbailehen bukatu nahi dut.

-Laguntzerik nahi? – galdetu dio Mikelek.

-Ezta pentsatu ere! Ez dut zurekin egon nahi – erantzun dio Txupagorritxok.

Aurrera jarraitu du Txupagorritxok Mikel atzean utzita. Bidean, plaza batean geratu du lora batzuk hartzen. Bitartean, Mikel aurreratu da eta amonaren etxerantz abiatu da. Bertara heldu denean, Txupagorritxoren amonari atea zabalarazi dio postaria dela esanez. Atea zabaldutakoan, Mikelek amona bultzatu eta barrura sartzera behartu du. Amonak, korrika, komunean sartu eta barrutik itxi du atea. Mikel atea zabaldu nahian alferrikako ahaleginetan dabilen bitartean, Txupagorritxo iritsi da, purrustaka, oso berandu egin baitzaio.

-Amona, amona, Txupagorritxo naiz!

Mikelek aditu duenean, komuneko atea zabaltzen saiatzeari utzi eta amonaren bata zaharra, betaurrekoak eta kapela jantzi ditu:

-Sartu, sartu, Txupagorritxo maitea! Sukaldean nago! – esan du Mikelek, amonaren ahotsa imitatuz.

Txupagorritxok sukalderako bidea hartu du:

-Amonatxo – esan du – amak eman didan txipa dakart, lehenbailehen zure ikerketa bukatzeko.

Baina amonarengana hurbildu denean, zerbait arraroa nabaritu du.

-Aizu amona, nolako begi arraroak dituzun! – esan dio Txupagorritxok.

-Bai, biloba maitea, hainbeste ordu ordenagailu aurrean... tanta batzuk bota ditut zu hobeto ikusteko.

-Aizu amona, a zer nolako labana handia daukazu! – harrituta Txupagorritxok.

-Bai, Txupagorritxo maitea – esan dio mozorroa kendu eta aulkitik altxatuz – zeure txipa hobeto hartzeko!

Une honetantxe, amona atera da komunetik eta, atzetik etorrita, egundoko kolpea eman dio Mikeli bere makila armatzat hartuta.

Izugarritzko arratsalde atsegina igaro dute amonak eta Txupagorritxok amak erositako txiparekin, asmakizun inportantea bukatu ahal izan zuelako amona eta auzokoez barrezka aritu zirelako arratsalde osoa tramankulu berriari esker.

-Hona hemen “Txanogorritxo” ipuinaren bertzio klasikoaren eta modernoaren artean dauden ezberdintasunak:

BERTSIO KLASIKOA	
<b>SARRERA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonaiak:           <ul style="list-style-type: none"> <li>*Txanogorritxo               <ul style="list-style-type: none"> <li>-txano gorria dauka</li> <li>-esanekoa da</li> <li>-saskia darama</li> </ul> </li> <li>*Ama               <ul style="list-style-type: none"> <li>-sagar opila/ ezitia amonarentzat</li> </ul> </li> <li>*Otsoa</li> <li>*Amona               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lekua:</li> </ul> </li> </ul> </li> <li>*Basoa</li> </ul>
<b>GERTAERAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Txanogorritxo loreak biltzera joan da</li> <li>• Otsoak Txanogorritxori ziria sartu dio</li> <li>• Otsoak txanogorritxo jan nahi du</li> </ul>
<b>BUKAERA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ehiztariak Txanogorritxo askatu du</li> </ul>

BERTSIO MODERNOA	
<b>SARRERA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonaiak           <ul style="list-style-type: none"> <li>*Txupagorritxo               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Txupa gorria dauka</li> <li>-Bihurria da</li> <li>-Motxila darama</li> </ul> </li> <li>*Ama               <ul style="list-style-type: none"> <li>-Txipa amonarentzat</li> </ul> </li> <li>*Espioia</li> <li>*Amona               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lekua</li> </ul> </li> </ul> </li> <li>*Hiria</li> </ul>
<b>GERTAERAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Txupagorritxo lagunekin joan da</li> <li>• Espioiak Txupagorritxori aurea hartu dio</li> <li>• Espioiak Txupagorritxori lapurtu nahi dio</li> </ul>
<b>BUKAERA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Amonak Txupagorritxo askatu du</li> </ul>

-Aukera ezazu beste ipuin klasiko bat eta bete itzazu ondoko taula hauek bertsio klasikoaren eta zuk zeuk asmatuko duzun bertsio modernoaren artean dauden ezberdintasunak aipatuz, goiko adibideari jarraituz. Gero, ezberdintasun horietan oinarriturik, idatz ezazu ipuinaren bertsio modernoa:

BERTSIO KLASIKOA	
SARRERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonaiak</li> <li>• Lekua</li> </ul>
GERTAERAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> </ul>
BUKAERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> </ul>

BERTSIO MODERNOA	
SARRERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonaiak</li> <li>• Lekua</li> </ul>
GERTAERAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> </ul>
BUKAERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>•</li> <li>•</li> </ul>

## 5 FITXA

### “IKUSEZINA NAIZ”

Istoriaa entzuten duzun bitartean, erantzun labur galdera sorta hauei:

- 1) Zer sartu du maletatxoan lanera joan aurretik?

.....

- 2) Non gelditzen da lanera joan baino lehen?

.....

- 3) Zer lapurtzen du egunero?

.....

4) Norentzat da protagonista ikusezina?

.....

5) Zertan egiten du lan?

.....

6) Nola irabazten du dirua?

.....

7) Zergatik gustatzen zaio horretan lan egitea?

.....

8) Noiz egiten du gorantz bere ekonomia?

.....

9) Arratsaldean, zer gertatu zaio berak maite duen neskarekin?

.....

10) Orain ikusezina izaten jarraitzen al du?

.....

#### 6 FITXA

-Aukeratu zure koadrilako argazki bat. Argazki hori oinarri izanik sortu ezazu istorio bat, pertsonaia horiei gertatutako istorioa asmatu behar duzu: pertsonaien izenak, nolakoak diren, zer gertatu zitzaizuen egun horretan, nondik zentozten, nora zoazten.



<http://redacoesabtw.blogspot.com/2010/09/amigos.html>

7 FITXA

-Ondoko eskema ipuinaren edukia laburtzen eta haren antolaketa grafikoki adierazten lagunduko dizu.

I Z E N B U R U A	1. P A S A R T E A	HASIERAKO EGOERA	
		ARAZOA	
		EKINTZAK	
		ONDORIOA	
	BEHIN BEHINEKO OREKA		
	2. P A S A R T E A	ARAZOA	
		EKINTZAK	
		ONDORIOA	
		AMAIERAKO EGOERA	

8 FITXA

Ipuinaren zirriborroa idazteko kontrol zerrenda

<p>a) Nork kontatuko du zure istorioa?</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsonaia batek? Horrela bada, zein pertsonatan idatziko duzu ipuina?</li> <li>- Kanpoko narratzaile batek? Zein pertsonatan idatziko duzu orduan?</li> </ul> <p>Kanpoko narratzaileak pertsonaiei buruz dena jakin dezake, edota ikusten duena soilik. Behin era batekoa edo bestekoa aukeratuz gero, gogoan izan beharko duzu ipuin osoan zehar.</p>
<p>b) Non eta zein garaitan kokatzen da zure istorioa?</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zein dira pertsonaien izenak?</li> </ul>

- Egokiak al dira aukeratutako izenak tokirako eta garairako?
- Pertsonaia baten izaerak eta jarrerak eragina dute haien ekintzetan. Deskribatuta daukazu pertsonaien izaera eta jarrera bat al datoz haren ekintzekin? Zerbait aldatu behar ote duzu?
- Ekintza horiek posible ote dira toki eta garai horretan?
c) Non txerta daiteke erarik egokienean leku deskribapena?
- Hasierako egoeran?
- Ekintzak kontaktzen diren tokian?
d) Istoria ordena kronologikoan antolatu duzu eskeman. Kontatzerakoan ordena kronologikoari jarraitu nahi al diozu?
e) Aurreko hausnarketa horretatik ateratako ondorioak kontuan izanik, idatzi koadernoan zure istorioaren zirriborroa.

## 9 FITXA

### IKASLEEN EBALUAZIOA

Hona hemen ikasleek, beste ikasleen idazlanak ebaluatzeko orduan kontuan hartu beharreko zenbait irizpide:

KRITIKA EGITEKO GIDA	
•	Kontaktaren zein alderdi iruditzen zaizkizu aipagarrienak?
•	Testuko zein zati kendu litezke? Zergatik ez dira garrantzitsuak?
•	Zerbait gehituko al liteke? Zein alderdik merezi du gehiago sakontzea?
•	Deskribapenetan txerta al litezke xehetasun gehiago pertsonaiak, haien sentimenduak edo lekuak hobeto irudikatzeke?
•	Nola hobetu liteke istorioaren hasiera irakurlearentzat erakargarri izan dadin? Eta amaiera?
•	Esaldiak ondo eraturik al daude? Nola adieraziko zenuke era egokiagoan zure ustez gaizki dagoen esaldi hori?
•	Ondo erabilita al daude puntuazio markak? Zer hobekuntza proposatuko zenioke?
•	Ortografiari dagokionez, zer iradokizun egingo zenioke istorioaren idazleari?

## 10 FITXA

### IKASLEEN AUTOEBALUAZIOA

<b>EGOKITASUNA</b>	Eskatutako lanari egokitu zaio (xedea eta luzera).
	Hartzailea kontuan hartzen du.
	Ez du esamolde desegokirik.
<b>KOHERENTZIA</b>	Ekoizpenak zentzu globala du.
	Eskatutako testu motaren berezko egitura errespetatzen du.
	Testua paragrafotan banatzen du.
<b>KOHESIOA</b>	Puntuazioa: puntua; koma zerrendetan; galdera eta harridura zeinuak.
	Denborazko testu-markatzaileak eta testu-lokailuak.

	Aditzaldien erabilera egokia.
<b>ZUZENTASUNA</b>	Aurkezpena: garbitasuna eta espazioaren banaketa.
	Letraren ulergarritasuna: tamaina, lerrokatzea...
	Ortografia: <ul style="list-style-type: none"> <li>- fonemen eta grafien arteko elkarrekikotasuna.</li> <li>- hitzen arteko bereizketa.</li> <li>- maizenik erabiltzen diren hitzen ortografia naturala.</li> <li>- oinarrizko ortografia-arauak: hitz larrien eta xeheen erabilera...</li> </ul>
	Sintaxia: <ul style="list-style-type: none"> <li>- genero, zenbaki eta pertsona komunztadura perpaus bakunean</li> <li>- hitz ordena perpausean</li> </ul>
	Euskara: oinarrizko deklinabide kasuak eta aditz formak zuzen erabiltzea.
<b>KOMUNIKAZIO BALIABIDEEN ABERASTASUNA</b>	Edukia: irudimena...
	Forma: <ul style="list-style-type: none"> <li>- hiztegiaren aberastasuna</li> <li>- perpaus bakunak eta juntaturazko perpaus elkartuak erabiltzea</li> </ul>

Irizpide hauek kontuan izanik ikasleek haiek merezi duten nota jarri beharko dute.

## 11 FITXA

Ebaluazio irizpide hauek hiru hizkuntzetako irakasleek amaierako lana ebaluatzerakoan elkarrekin kontuan hartu beharreko irizpideak izango dira. Hiru hizkuntzak modu bateratu batean irakasteak ez du bakarrik esan nahi gai berdina hiru hizkuntzetan landuko denik, baizik eta helburu, eduki, metodo eta ebaluazio berdina izatea hizkuntza guztietan, hau da, gauzak egiteko orduan elementu eta metodo antzekoak erabiltzea. Horretarako, hona hemen kontuan hartu beharreko irizpideak unitatea ebaluatzeko orduan:

### EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**Ikaslearen izena:** .....

**Ikasgaia:** .....

**Data:** .....

- **Idazlanaren aurkezpena**

### Balorazioa

Orrian tarteak errespetatzen al ditu?	
Lerro zuzenak egiten al ditu?	
Letra ulergarria al dauka?	
Paragrafoak ondo bereizten al ditu?	

Orria txukun aurkezten al du?	
-------------------------------	--

- **Egitura eta ordena**

Idazlanetan ideiak ordenatuta azaltzen al ditu?	
Idazlanetan ideiak errepikatzen al ditu?	
Idazlan bakoitzaren atalak zaintzen al ditu? (hasiera, korapiloa, amaiera).	

- **Aberastasuna**

Idazterakoan lexiko aberatsa erabiltzen al du?	
Esamolde biziak ikasten eta erabiltzen saiatzen al da?	

- **Zuzentasuna**

Hizkuntza nola erabiltzen du?	
Aditza	
Deklinabidea	
Sintaxia	
Lexikoa	
Ortografia	



## Bibliografía

- FERRER, M. (1998): “La integración de las lenguas en la educación secundaria”, in *Aula de Innovación Educativa*, znb. 70, or 14-16.
- GUASCH, O. (2007). “La educación multilingüe. Un reto para el profesorado”, in *Cultura y Educación*, znb. 19 (2), or 135-147.
- GUASCH, O. (2008). “Reflexión interlingüística y enseñanza integrada de lenguas” in *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, znb.47, or 20-32. Barcelona: Editorial Graó.
- DIAZABAL, I. (2000). “Hizkuntza trebetasunen transferentzia programa elebidunetan”, in *Ikastaria*, znb 12, or. 143- 145.
- NOGUEROL, A. (2001). “Cómo tratar la diversidad lingüística y cultural”, in M. CASAS eta C. TOMAS (eds.). *Educación primaria. Orientaciones y recursos*. Barcelona: CISS/ Praxis
- NOGUEROL, A. (2008). “El tratamiento integrado de las lenguas en el marco europeo”, in *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, znb.47, or 10-19. Barcelona: Editorial Graó.
- OLAZIREGI, I. eta SIERRA, J. (1993). Diversas alternativas de enseñanza bilingüe. Evaluación y comparación. Siguan, M. (koord.). *Enseñanza en dos lenguas*. Barcelona: ICE Universidad de Barcelona.
- RAMIREZ, R., SERRA, T. (1999). “Proyecto integrado de lenguas”, in *Aula de Innovación Educativa*, znb. 87, or. 43-46
- RUIZ BIKANDI, U. (2000). Didáctica de la segunda lengua en educación infantil y primaria. Madrid: Síntesis Educación
- RUIZ BIKANDI, U. (2006). *Hizkuntzen irakaskuntzan printzipio metodologiko komunak, zein neurritan?*. In Jakingarriak. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua
- RUIZ BIKANDI, U. (2008). “La reflexión metalingüística desde varias lenguas” in *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, znb.47, or 33-45. Barcelona: Editorial Graó.
- RUIZ PEREZ, T. (2008). “El tratamiento integrado de lenguas. Construir una programación conjunta” in *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, znb.47, or 46-58. Barcelona: Editorial Graó.
- SAGASTA ERRASTI, M. P. (2002). La producción escrita en euskara, castellano e inglés en el modelo D y en el modelo de inmersión. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- SAGASTA ERRASTI, M. P., SAINZ OSINAGA, M. (2006). *Gure ikastetxean hezkuntza-proiektu eleanitza eraiki nahi dugu: lagungarri izan daitezkeen hainbat alderdi*. Mondragon: Mondragon Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.